

...eta!
Kittoa!

2016-IX-30

986 zkia.



Txotx!

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK


AHOLKULARITZA

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurkitzearen dirulaguntzen tramitazioa

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com



PARTE HARTZEA

IRA 1 - URR 14

PRESTATZEA

URR 15

ONARTZEA

AZA

KONTU EMATEA

ABE

Aurrekontu Irekiak 2017.

Gipuzkoa hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko momentua da orain. Gureagoa den Gipuzkoa. Orain zuk erabakitzen duzu Gipuzkoan zein proiektu nahi dituzun. Informa zaitez proiektuei buruz, zure ideien berri eman eta parte hartu, zure ustez gure lurraldearentzat interesgarrienak diren proiektuak lehenetsiz.

Orain Gipuzkoa. Orain zu.



www.gipuzkoa.eus/partaidetza

URRIAREN 14RA ARTE HAR DEZAKEZU PARTE

943 112 111 • partaidetza@gipuzkoa.eus

 @OrainGipuzkoa  OrainGipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

– erredakzioaren oharra –

Datorren asteko barixakua, urriaren 7a, jai-eguna denez, alea egun baten aurreratuko dugu eta **urriaren 6an, egunean, kaleratuko**. Hori dela-eta, informazioa eta zorion agurrak jasotzeko azken eguna martitzena izango da.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LASTO HUTS.- Funtsik edo maminik gabekoa. *“Fray Gerundion gaurko jarduna, lasto hutsa”.*
LATZ.- Ikutzeko lehorra, leuntasunik gabekoa. *“Lizpapela erabilli arren, latz-latza laga dau”.*
Handia, gogorra, itzela. *“Atentau dala-ta, kolpe latza hartu dau hango turismuak”.*

astean esanak

“Emakumeak normalizat jotzen du ama izatean bere zaletasunez, lanean izan ditzakeen erronkei eta abarri uko egitea. Mahai batekin parekatuz gero, izango litzateke eusten dion hanka bakarra. Hori mugituz gero, mahai guztia hankaz gora jartzen da. Hanka gehiago izango balitu, oreka handiagoa litzateke. Ama garen unetik, ematen du beste eremu guztietan ez garela beharrezkoak, eta gizarteak onartu eta ulertu egiten du hala izatea. Gizonezkoen kasuan ez da horrela gertatzen. Eurentzat aitatasuna zerbait puntuala eta aukerakoa da”

(BEATRIZ GIMENO, FEMINISTA)

“Migratzaileak ez sartzeko hesia erabiliko bagenu energia ez sartzeko, materialak ez sartzeko edo hondakinak ez ateratzeko, ez genuke bi hilabete ere irauango. Hemen ez gara denok sartzan esaten dugunean, zaintzari erreparatuta, konturatzen gara arpilatutako herrialdeetatik datozen emakumeek egiten dutela lan adindunak, umeak eta elbarrituak zaintzen? Baina ez da Espainiako eta Europako kontua soilik, mundu osoko naturarekiko mendekotasunaz eta elkarren arteko mendekotasunaz ari gara, eta sostengaezina da. Gehiago behar duen jendea badago, asko dugunok gutxiagorekin bizi beharko dugu”

(YAYO HERRERO, ANTROPOLOGOA)

“Gobernuri gabe, Espainiako ekonomiak hobera egin du. Zergatik? Espainian gobernurik ez dagoen bitartean, Europako murrizketarik ezin izan delako aplikatu! Orduan, zergatik eskatu du Confedebaske funtzionarioen lan-baldintzek txarrera egin dezatela? Edo alde aurretik finkatu bako soldatak ipintzeko Jaurlaritzari? Gure etorkizun politikoa erabakitzeko, gure orainaldi ekonomikoaren jabe izan behar gara. Eta hori, kasualitatez, ez da hauteskundeetan bermatzen. Krisialditi hona, soldatarik txikienek %18,6ko jaitsiera izan duten bitartean, altuenek %7,2ko igoera erakutsi dute. Alde horri eustea legezkoa da, gainera”

(MARIA GONZALEZ, EHUko IRAKASLEA)



FELIX MORQUECHO

Ez dago hitzik

Agian oraindik nahastuta egongo zarete joan den igandean hauteskundeak izan direla eta. Zenbat paper ziren oraingoan, bat edo bi? Eta zerbait idatzi behar zen edo ixak jarri...? Herri nahasia da gurea eta batez ere Eibarren, badakizue, boto gorria udalarako, berde argia Europan, berde iluna EAEn eta morea Madrilerako... edo aldrebes al zen? Hain herri zaila daukagu zer lagun batek esan zidan "hauei eman diet botoa, baina pozten naiz horrenbesteko emaitzarik atara ez izanaz, ez daitezela harroegi jarri". Horregatik proposamen bat egingo dut datozen botazioetarako. Ikusita buruhaustea, ondo legoke gure botoa zaituta emateko aukera izatea. Adibidez: %20 hauei emateko aukera edukiko nuke, oso jatorra baita hautagaia, beste %10 betikoei hain gaizki egin ez dutelako, %30 plataforma txiki horri ea ustekabeen gobernuan sartzen den, eta beste %40 ba... ez dakit, hausnarketa egunerako utziko dut oraingoz. Sistema hau guztiz iraultzailea izango litzateke eta aldi berean sekulako kakanastea sortuko luke zenbaketa egiterakoan, pentsa, astebete emaitzen zain. Ondo pentsatuta hobe proposamenik ez botatzea, badaezpada norbaiti kasu egiteko tentazioa sartzen zaion. Dena dela, sistema aldatzekotan hobe denon artean aukeratzea, ezta? Beste hauteskunde batzuk horretarako? Ea ba, botatzera joateagatik ez da izango!

Ekintzaille eta enpresendako diru-laguntzak

Langabezian daguazenezako diru-laguntza programia abiarazi dau udalak. Laguntasunak euren formakuntza hobetu nahi daberen langabetuendako eta enpresa barruan errelebuak egin nahi dabeneri laguntzekuak dira. Hiru azpiataletan bereizi dittue: Ekin izenekua, enplegua sortzeko ekimen berrak martxan ipitzeko; Iraun, enpresa jarduerari ekin detseneri hori finkatzen laguntzeko; eta Osteko izenekua, barriz, enpresa barruan belaunaldi aldaketia egin nahi dabeneri laguntzeko. Diru-laguntzen lehen ediziño honetarako 30.000 euroko partida aurreikusitako diru-laguntza. Horrekin batera, langabetuen formakuntzarako beste 20.000 euro banatzeko prest dagoz. Eskerak aurkezteko eta laguntzen inguruko informaziño gehixago eskatzeko Pegorara jo leike edo, bestela, eibar.eus webgunian begiratu.



urte bete ziran hillan 28xan Portalea kultur etxiak atiak zabaldu zittuala. AYA eskopeta taillarra izandakua 8.000 metro karratuak egokitze bisharretan 777 millioi pezeta gastau zittuen.



Magia eta antzerkia auzoetan

Aurreko asteburuan eta aste honetan bertan, magia eta antzerki-ikuskizunak izan ditugu Eibarko hainbat auzotan. Legarreko jaien barruan, helduentzat ez ezik etxeko txikienentzat ere izan da ondo pasatzeko aukera. Barixaku iluntzian "Non dago elefante gorria?" antzezlanarekin gozatu zuten, eta zapatu arratsaldean, berriz, "Trotamundis zirkoa" antzezlanaren txanda izan zen. Umeak ikuskizunak ikusten zeuden bitartean, ...eta kitto!ko dinamizatzaileak gurasoekin berba egiteko aukera aprobetxatu zuten, Berbetan mintzapraktika programa eta Ongi etorri Berbetanera harrera eta elkarbizitzarako programen berri eman eta izena ematera animatzeko. Gauza bera egin zuten martitzen eta eguaztenean, Amaña eta Urkizu auzoetan ere. Tor magoa zetorrela aprobetxatuz bi programak azaldu zituzten ...eta kitto!koek, eta baita erantzunak jaso ere. Hiru auzoetan azalpenak eman ondoren bat baino gehiago agertu da programa horietan parte hartzeko prest. Urte osoan eman daiteke izena. Berbetan mintzapraktikako programan ...eta kitto!ra deituz (943200918), emaila idatziz (elkarte@etakitto.eus) eta web-orriaren bitartez (www.etakitto.eus), eta Ongi etorri programan, berriz, 943200918 telefonora deituz edo ongietorri@etakitto.eus (Miren) helbidera idatziz, eta 943708440 telefonoan edo immigrazioa@eibar.eus (Jone) helbidean.



Egoaziaren bazkari solidarixua

Eguaztenian aurkeztu eben hirugarrenez egingo dan bazkari solidarixua antolatzailliak, Aldatzen eta Egoazia boluntario taldiak. Aurkezpenerako gonbidatu berezixa ekarri eben: Elena Arzak sukaldarixa. Udaletxiak hartu eban ekitaldixan laguntzaillietako batzuk be egon ziran: Miguel de los Toyos alkatia, Idoia Sarasketa Gizartekintza ziñegotzixa eta Asier Albizu, alkarte gastronomikuak ordezkatzen. Aurrekuetan Untzaga plazia betetzia lortu daben ekitaldixak aurten be arrakasta bera izatia espero dabe: bazkarixa urriaren 15ian egingo da, 14:00etan Untzagan eta tiketak astelehenetik aurrera egongo dira salgai Kultu, Koxkor, Guridi eta Kontent tabernetan eta Villalba supermerkatuan (10 eurotan; 7 eurotan ume, jubilatu eta langabetuendako; juaterik ez dakenendako "Plato 0" dalakua erosteko aukeria egongo da).

Antolatzailliak helburu bikoitza dake: "Batetik, Peruko nekazarixeri laguntzeko dirua baztixa eta, horrekin batera, toki guztietan ez dirala gu bezin ondo bizi ikustaraztixa". Aurrekuetan bezala arroza bazkalduko dabe eta hori preparatzeko bidezko merkataritzako produktuk erabilliko dittue. Oinguan, gaiñera, Aza Ta Porrúa alkartiarekin alkarlanian jardungo dabe lehelengoz eta, horrerik esker, hamengo nekazaritzari be emongo detse bultzada, besitiak beste bertako barazki eta

oillaskuak sukaldatuko dittuelako eta bazkaltzen hasi aurretik Sosola basarriko gaztixa emongo dabe. Bazkarixaren aitzakixarekin beste jarduera batzuk be egingo dittue: eguardixan umiendako sukaldaritzta taillarra emongo dau Mireia Alonsok, ipuin-kontalari saia eskinduko dabe...

400 bat lagunendako arroza preparau biharko dabela eta, alkarte gastronomikue-ri laguntzeko gonbidapena bialdu detse eta, batenbat animatuz gero, Egoaziarekin kontaktuan ipintzixa eskatu dabe. Ekimena babestera etorri zan Elena Arzaken berbetan, "sukaldatzixa ekintza kulturala be bada eta gaztieri giza baloreak erakusteko modu aparta dala begittantzen jata. Holakuetan pozarren laguntzen dot eta, ahal doten neurrixan, ingurukueri honi buruz berba egingo detset".



Aurkezen ekitaldixan gonbidatu berezixa egon zan: Elena Arzak sukaldari ezaguna bazkarixa babestera etorri zan. **Silbia**

autuan

Alderdi Eguna

Domekan Forondan Alderdi Eguna ospatuko da eta Eibarko Batzokixak txosna ipiñiko dau, EAJ-PNVren Eibarko Uri Buru Batzarrak aditzera emon dabenez. Hara juateko autobusa be antolatu dabe: Urkizutik (Zubi Gain paretik) 09:40ean urtengo da eta Ego Gaiñeko geralekutik, barriz, 09:45ian. Bueltarako autobusa 18:00etan izango da. Erreserbak egitteko Batzokira deittu leike (943120616). Tiketak 8 euro balixo dau.

Energixa inspekziñuak

Debegesak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarekin alkarlanian, energixa ikuskaritzak musutruk egitteko aukeria eskinduko detse Debabarrena Turismo dalakuan kolaboratzen daben eskualdeko enpresa turistikueri, arlo horretan dittuen kostuak murrizten laguntzeko asmuarekin. Plazak mugatuak dira eta izen-emateko azken eguna gaur da (mluisa@debegesa.eus helbidera idatzitta). Informaziño gehixago debegesa.eus webgunian dago.

 **bista eder**
clinica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara
etortzeko arrazoiak

R.P.S. 53/13



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

www.innovadentalclinicas.com

 **bista eder** Bista Eder, 19
clinica dental - hortz klinika 20600 Eibar Tel: 943 70 00 82

 **innovaDental**  **Azpeitia**
Jose de Artetxe, 5
20730 Azpeitia Tel: 943 02 59 55

EAJ-PNV nagusi Eibarren, askorengaittik

Domekako Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundi-dietan EAJ-PNV alde haundixarekin nagusitu zan Eibarren, 4.223 boto-rekin. Azken aldian izan dittugun hauteskundi-dietako emaitzak ixa 1.000 bototan gaintu zittuan (3.053 izan zittuan ekaiñian eta 3.327 iazko azaruan), oin dala lau urteko emaitzetara bueltatzeko (orduan be nagusi izan zan, 4.250 botorekin,



baiña bestieri tarte txikixagua etarta). EH-Bildu bigarren indarra izan da gurian, 2.898 botorekin, azken hauteskundi-dietan izandako jaitsieria gerarazita eta ixa 1.000 bototan gora eginda (1.913 izan zittuan ekaiñian eta 2.376 iazko azaruan); halanda be, oin dala lau urte baiño ixa 1.000 boto gitxiago etara zittuan domekan (orduan 3.839 lortu zittuan). PSE-EE hirugarren indarra billakatu da oinguan, 2.784 botorekin, azken hauteskundi-dietako beheranzko joerarekin segiduta (3.000 boto jaso zittuan ekaiñian eta 3.144 iazko azaruan); hori bai, oin dala lau urtekoarekin alderatuta, ixa 1.200 boto gitxiago jaso dittu oinguan, orduko 3.954 botuetatik urruti. Elkarrekin Podemos laugarren indarra izan da Eibarren estatu maillako aurreko bi hauteskundi-dietan nagusi izan eta gero.

1.686 boto lortu dittu Eusko Jaurlaritzako hauteskundi-dietan indar barrixak, oin dala hiru hillebete jasotako 3.950 botuetatik oso urruti eta, zer esanik ez, iazko azaruan Eibarren aurkeztu zan lehen aldian bereganatutako 4.202 botuetatik. PP-k 940 boto eskuratu dittu; honek be behe-eragin dau (1.363 lortu zittuan ekaiñian eta 1.330 iazko azaruan), baita oin dala lau urte izandako kopuruarekin konparatuz gero be (orduan 1.150 boto jaso zittuan). Ciudadanos-ek 157 boto baiño ez dau jaso.

Beste batzuetan bezala hauteskunde egunari buruzko ale berezixa emon dogu argitara paperian eta astelehenian duan banatu zan kiosko eta beste denda batzuetan. Horrekin batera, interneten aliaren PDF-ia eskuratu zeinkie, www.etakitto.eus webguneko "mediateka" atalian.



San Miguel jaixak Aginagan

Eguena San Miguel eguna izan zala eta, asteburuan jaixak ospatuko dittue Aginaga auzokuak. Bixarko programia arratsaldetik hasiko da, 17:00etako briska txapelketarekin. Ordu erdi geruago umiendako jolasak eta txokolate-jana antolatu dittue eta gaberako, barriz, afarixa eta Kupela taldiarekin erromerixia. Eta goizaldian oindiok parrandan dabizenak, bestalde, txokolate berua hartzeko aukeria euki dabe. Domekan, barriz, 11:00etako meza nagusixarekin hasiko dabe eguna. 12:30xetan Gorriti eta bere animalixak aillegauko dira eta 14:30xetatik aurrera paella-jana egingo dabe, trikitalarixak alaittuta. Jaixeri agur esan baiño lehen zozketia egingo dabe antolatzailliak.



Parte-hartze haundixa izan dittue jaixok. **Maialen**

Primerako jaixak Legarren

Asteburu bete-betia izan eben Legarren aurrekuan, auzoko jaixak zirala eta. Arrajolape kultur alkartekuak kontau deskuenez, "aurten be primeran pasau dittugu jaixak. Sosolan goxo-goxo jan eta tratauta izan ostian, aurreko asteburua benetan potentia izan zan. Barixakuan 100 bat ume euki genduazan afaltzen eta tortilla-txapelketian agerixan geratu zan sukaldari bikaiñak be badittugula. Zapatua, barriz, 255 eskillara igota hasi genduan. Legarreko lehen kro-noeskillaria benetan ederra, ikusgarrixa izan zan eta, parte-hartzailliak esandakuaren arabera, oso oso gogorra. Pintxo-triki-potea eta gero umiak jolasten ipiñi genduazan eta, gosa egin eta gero, 160 lagun alkart-

tu giñan Ortutik Ahora taldekuak prepa-
rau eben bazkari ekologiko eta ederrian jaten. Arratsaldeko txokolatadia, paillazo, buruhandi eta erromeri zoragarrixen ondoren kontzertua euki genduan: Eirband eta Kokein taldiak bikain jardun eben".

Diñuenaz, datorren urterako be jaixak antolatzeko goguarrekin geratu dira Arrajolape kultur alkartekuak, "eta horretarako diru premiñia izaten da urtero. Aurten be errifak salduta lortu dogu diru apur bat batzia eta hōnek dira zenbaki sari-tuak: 116 afarixa Txaltxan; 479 afarixa Gure Lekun; 1.124 afarixa Deporren; eta 1.337 afarixa Hirurok tabernan. On egin sariduneri eta segi errifak erosten!".

TUTULUMENDI



IDURRE
 IRIONDO

Azoka ekologikua domekan Urkizun

Domekan Urkizun egingo dan azoka ekologikurekin hasi-ko da Debabarreneko V. Aste Ekologikua. Goizeko 10:00etatik 14:00ak arte zabalduko daben azokia Eibarko udalak eta Debemen eta Biolur alkartiak antolatu dabe eta, aurrekuetan bezala, gure basarrietako produktu desberdin asko ezagutzeko eta erosteko aukeria eskinduko dabe Euskal Herriko hainbat tokittatik etorriko diran ekoizliak. Edozelan be, produktu guztiak modu ekologikuan zaindutakuak eta artisau eran elaboratutakuak izango dira. Horrekin batera EH kolektibuak eta Biolur alkartekuak informaziñua emoteko postuak be ipiñiko ditue beste jarduera osagarri batzurekin batera: otarren zozketia, taillarrak (umiendako landaketa-taillarra, sukaldaritzta taillarra, Aza ta Porrúa alkartiarekin).

Bestalde, azokiari lotuta, datozen egunotarako ekitaldixak be antolatu ditue: astelehenian Elgoibarko "Txillarrekodenda" sukaldaritzta-ikastarua emongo dau (18:00etatik 20:30xetara)



Olaia Blanco sukaldarixak eta eguaztenian Ekoalboraz-en ekoizpena ikusteko bisita egingo dabe, hori be Elgoibarren (18:00etatik 20:00etara). Bixak izango dira duan, baiña alde aurretik ize-na emon biharko da, Biolurrera deittuta (943 76 14 47).

Alkarretaratzia Nagusixen Egunian

Astelehenian (urriak 3) mundu mailan Nagusixen Eguna gogoratuko dabela eta, Eibarren be horren inguruko ekitaldixa antolatu dabe jubilauek: arratsaldeko 19:00etarako alkarretaratzia deittu dabe Untzagan, jubilauek etxiaren aldeko plazan, zaharrak dituen eskaeriak eta eskubidiak aldarrikatzeko asmuarekin. Horregaittik Eibar eta inguruko nagusixak ekitaldixarekin bat egittera animau nahi ditue.



Igogaillua astebururako prest

Bista Eder eta Eulogio Garate kalien arteko igogaillua asteburuan atzera be martxan ipiñiko dabela azaldu dabe udaleko Obra eta Zerbitzu Saillak. Kale bixak lotzen dituan igogaillua aurreko aste-ko astelehenaz geroztik dago geldirik. Esan dabenez, "egun hartan, igogailluaren mantenimientuaz ardurtzen dan Thyssenkrupp enpresakuak kablietako bat gastauta eguala ikusi eben". Horregaittik, hondatutako kablia barri batengaittik kanbixau bittartian, igogaillua gelditzia erabagi eben, "jendiaren segurtasuna zaindu eta bermatzarren".



Aurreko aste-ko astelehenaz geroztik ezin leike erabilli igogaillua.

Hondakinak sailkatzen ikasi dugun bezala, erabiltzen ez dugun erropa edukiontzietan lagatzea ohitura bihurtu da herritar askorentzat. Hori egiten dugunean beti pentsatzen dugu bateron bati laguntzen ari garela. Eta ondo gabiltza. Erropa horrekin zer egiten den eta zertan laguntzen dugun jakiteko Zuloagatarren kalean dagoen Kooperera Store dendakoekin egon gara. Uda aurretik zabaldu zituzten dendako ateak, eta Eibarren izan duten harrera txalotzekoa dela diote. Bertako langileetaz gain, Caritaseko bolondresak ere egoten dira dendan. Moda jasagarria eta giro desberdina eskaintzen dute. Bigarren eskuko erropa, prezio onean. Helburuak gizartean eta lan munduan bazterketa jasateko arriskuan daudenei laguntzea, ingurugiroa zaintzea eta erroparen gestio eta komertzializazio etikoa bultzatzea dira.

KOOPERERA STORE

Ingurugiroa eta pertsonak zaintzen dituen denda eta proiektua

Oso gustora daude orain arte izandako erantzunarekin. Uda aurretik zabaldu zuten denda, eta 5.600 jantzi saldu dituzte dagoeneko. Familia guztiarentzako erropa aurki daiteke bertan, eta oso prezio onean. Egunero sartzen dira bezero berriak.

Kooperera Storen erosten duenak zertan laguntzen duen pentsa dezake batek baino gehiagok. Azaldu digutenez, "hemen erosten dutenak pertsona ahulentzako enplegua sortzen laguntzen ari dira, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenei lanpostuak eta formazioa eskaintzen diegu eta. Gainera, egoera makalean dauden pertsonen erropa erosi ahal izateko aukera ematen diegu. Kontsumo jasagarriaren bidez, ingurugiroaren zainketan laguntzen dute, erabiltzen ez duten erropari bigarren bizitza emanez".

Zer gertatzen da erropa edukiontzian lagatzen dugunetik

Bilketaz arduratzen direnek astean bi aldiz eramaten dute erropa guztia Mungian aukeraketaz eta produkzioaz arduratzen den *Kooperera Reusing Center*-era. Kooperak hiru bilketa-gune ditu Euskal Herrian. Hiru fabriken artean urtean 5.400 tona erropa prozesatzen dira.

Erropa fabrikara iristen denean, tratamendu-zirkuitutik pasatzen da eta jantzi-motaren, dagoen egoeraren eta erabilgarria izan daitekeen urtaroren arabera sailkatzen da. Helburua bat ere hondakinik ez geratzea da (Hondakin 0): egoera onenean

dauden jantziak zuzenean dendetara bidaltzeko sailkatzen dira, eta salduko ez direnak beste proiektu batzuetara bideratzen dira (esate baterako, Chile eta Errumania). *"Azken finean, Euskadi ez da gai bigarren eskuko hainbeste erropa hartzeko".*

Ondoren, erropa dendan departamentura pasatzen da eta, hor, jantzi bakoitzari emango zaion balioa erabakitzen da, pre-



Gero eta erropa gehiago lagatzen da kontainer hauetan. Modu horretan, ingurugiroa zaintzeaz gain, proiektu sozial bati laguntzen zaio.



zioa ezarri ahal izateko. Klasifikatu eta etiketatu ondoren kamara baten garbitu eta, ondoren, dendetara eramaten da. *"Guztira 33 Kooperera Store daude Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Kantabria, Asturias, Balentzia, Castelló, Teruel, Albacete eta Almerian banatuta".*

Gure armairua "garbitzeko" aholkuak

Kooperakoek gure armairuak garbitzeko orduan jarraitu ditzakegun aholku batzuk eman dizkigute:

- Sasoiaren arabera banandu (udaberri/uda/udazken/negua)
- Jantzi-motaren arabera sailkatu (kamisetak, prakak, berokiak, zapatak, osagarriak...)
- Euren egoera aztertu.
- Jantzi bakoitza azkeneko noiz erabili dugun kalkulatu, berriro erabiliko dugun ala ez argitzeko. Denboraldi osoan ez badugu erabili, ziurrenik ez dugu berriro erabiliko (salbuespenak salbu).
- Erropa probatu, neurritz aldatu dugun ikusteko.



gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrila martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832
estudio etxeberrila
arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak
Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko arotzegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com
677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964
**electricidad
iparelek** s.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

THELECE
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
ERAKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajtoficina.com Tf. 943 80 12 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**
PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**
Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua
Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F

TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
*Garbiketa eta
mantenimendua*

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR
PINTURAS
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA
OROKORREAN
BARNE eta KANPOKO
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Astelehenian udaletxian egindako bilkuran, Eibarko Udaltzako aho batez onartu eban datozen hamar urtietan indarrian izango dan Euskararen Plan Estrategiko barrixa. Euskeriak gure herrixan bihar bezinbeste toki izatia, nahi daben guztiak erabiltzeko aukeria izango dabela bermatzia billatzen dabe plana eratzen alkarlanian jardun daben guztiak. Eta udalarena barik herrixaren plan modura presentau daben horrek asmo hori betetzia lortuko badau, herritarrak alkarlanian jardun dabelako izango dala oso argi dake horretan biharrian jardun dabenak. Horregaittik nahi dabe ahalik eta jende gehixen inplikatzia, egunen batian Eibarren nahi daben guztiak euskeraz bizitzeko aukeria izateko.



Martitzenian presentau eben plan barrixa Udaleko Euskara Batzordeko kidiak. **Silbia**

Euskeraz bizi ahal izateko plana

Udaltzako onartu eta hurrengo goizian, martitzenian aurkeztu eben plana prentsaren aurrian, Patxi Lejardi Euskara ziñegotzi eta Batzordeburuak eta Igone Lamarain, Eva Juez eta Maria Jesus Agirre batzorde horretako kide diran ziñegotzixak, Junkal Txurruka Euskara Teknikariarekin batera. "Eibarko Hiria. Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025" izenburukua "herritarren eta hainbat eragileren aldetik euskeriaren billakaeraren inguruko hausnarketia eta norabide partekatatu baten premiñia somatuta" egin dala adierazi eban Patxi Lejardi Euskera eta Kultura ziñegotzixak, horrekin batera herritarren zein herriko eragille ezberdiñen parte-hartzia azpimarratuta: "Plan estrategiko horren bisiñua, oiñarri estrategikuak, helburuak, neurrixak eta ekintzak zihezteko herritarren partaidetza bidezko prozesu burutu da. 2015eko azaruan hasi eta

2016ko martxuan amaittu zan EMUN enpresakuen laguntasunarekin bideratutako prozesua eta bertan Eibarko sektore diferentietako 40 lagun inguruk hartu dabe parte: gurasuak, eskoletako ordezkariak, aisialdixan diharduenak, kulturakuak, kirol arlokuak, enpresariuak, dendariak, tabernariak, gaztiak... Eurak esandakuekin batera Udaleko Euskara Batzorde Aholkularia osatzen daben ziñegotzixak egindako ekarpenak be jaso dira".

Udaleko alderdi politikuetako ordezkari guztiak pozarren dagoz plana onartu dala eta. Igone Lamarain EH Bilduko ordezkariaren berbetan, "azken urtietan udalak arlo honetan neurri eraginkorrek hartu ditutuala aitortu biharra dago. Halanda be, alde haundixa dago udalaren barruan pasatzen danaren eta kanpuan daganaren artian. Euskeriaren billakaeria zelakua izan dan begiratzen hasiz gero, oin arteko pla-

nak ez dirala oso eraginkorrek izan esan geinke. Euskalgintzan sakondu bihar dala uste dogu eta, horretarako, alkarlana biharrezkua izango da eta udalak baliabidiak ipiñi biharko ditte. Planak urrats senduaguak emoteko dabela pentsatzen dogu, horretarako abiapuntua izango dala. Helburua Eibarren euskeraz bizi ahal izatia da eta, hori lortzeko, bestiak beste konpromiso politikua hartzia biharrezkua ikusten dogu, eraldaketa soziala eragiteko baliabidiak inportantia deritzogu".

Eva Juez bozeramaille jeltzalia be bat dator Lamarainek esandako "ia guztiarekin", baiña puntualizaziño batzuk gehittuta: "Aurretik egindako planak erabilgarririk izan dirala uste dogu guk, baiña arazua teorixatik praktikara pasatzerakuan daguala pentsatzen dogu". Edozelan be, plana onartzeko eguna ailegatzeko "gogo haundixa" zekela esan eban: "Udal-plana da, baiña herritarren plana be bada, horregaittik herritarren garrantzixa azpimarratu nahi dogu. Euskeria erabiltzia eta aurrera etaratzia danon erantzunkizuna da. Euskeria gure kulturaren parte garrantzitsua da, altxorra eta hori zaintziaren arduria danona da, herritarren ordezkariak garan neurrixan guk erantzunkizun bikoitza daukagu, batetik eredu garalako eta bestetik herritarrak be bagaralako. Plana ez da eraginkorra izango teorixatik praktikara eruan ezian eta horretan danon alkarlana biharrezkua da. Jendia euskeraz egittera animatzia gustauko li-



Astelehenko plenuan aho batez onartu eben hamar urterako plan estrategikua. **Silbia**

txakigu, ahalegiñak merezi dau eta. Inportantiena egunero praktikan ipintzia da eta, horregaittik, euskeraz dakigunak euskeraz egin bihar dogu".

Eibar Irabaziko Maria Jesus Agirrek be bat egitten dau aurreko bixak esandakuekin, "eta, zailtasunen gaiñetik beti euskeraz egitteko ahalegiña egittera animau nahi dot mundu guztia. Ni 40 urterekin zerotik ikasten hasi nintzan eta euskeria gero eta toki gehixagotan entzutiak poz haundixa emoten desta. Eta asko pozten naiz denda edo tokiren batera juaterakuan nik euskeraz hasi eta euskeraz jarraitzeko aukeria dakatela ikusten doten bakotxian. Helburua euskeria normaltasunez erabiltzeko aukeria izatia da eta oin gure lana da ahalegin guztiak horretara ipintzia, udala eta ziñegotzixak horretan eredu izan bihar gara eta".



Indar berezixa egingo dabe ume eta gaztiak euskeria oin baiño gehixago erabilli deixen.

Haur eta gaztien garrantzixa

Izan be, plan horretan danak alkarrekin adostu daben bisioño edo helburu oso argixa jaso dabe: "Eibarko gazte eta haurren eremua euskeriaren arnagune izateko, inguruko agenteak saretzia eta eragille aktibo bihurtzia". Azaldu ebenaren arabera, "fokua haur eta gaztiengan jartzen da, baiña planaren agente eragille, ume eta gaztien ingurunia izango da, hau da, famelixia, eskolia, aisialdixa, kirola, kultura eta arlo sozioekonomikua. Horrek guztiak aktibatzeke biharrian jardun biharko dogu datozen urtietan".

Planaren barruan hiru oiñarri estrategiko landuko dittuela aurreratu eben presentaziñuan: "Batetik etenbariko komunikaziñua eta sensibilizaziñua; horrekin batera, udalaren jardunian sail guztiak norabide berian juatia; eta, hirugarrenik, eragillien (aisialdiko alkarte, ikastetxe, guraso...) arteko saretzia. Horretarako 10 urtera begirako bisioña zihaztu da, oiñarri estrategikuak definiñdu dira eta esparrukako neurrixak eta ekin-tzak be jaso dira. Horrekin batera, plan estrategikua aurrera eruateko antolatu biharreko egitura-proposamena be egitten da".

Alkarlanian jarduteko premiñia

Lehelengotikan argi laga nahi izan dabe plana alkarlanaren emaitza dala eta aurrera begira be herritarren eta talde ezberdiñen parte-hartziaren garrantzixa azpimarratu nahi dabe: "Euskara Batzordiak garbi ikusten dau horrelako plan bat aurrera eruateko eta ezarritako helburuak lortzeko ezinbestekua dala herritarrek, alkartiak eta erakundiak konpromiso sendua hartzia, beti be Udalak dakan arduria albo batera laga barik".

Horretarako "Euskeriaren Foroa" izenekua eratu nahi dabe: "Bertan, Eibarren plan horrekin neurri batian edo bestian bat egitten daben kidiak bilduko dira. Mailla personalian edota alkarte/erakunde baten ordezkari gisa parte hartzeko aukeria izango dabe". Datorren hillion Foro horrek lehen billeria egittia aurreikusi dabe eta datozen egunotan planaren eraketa-prozesuan parte hartu ebeneri gonbidapenak bidaliko detsez.

Eta aurkezpenarekin amaittu aurretik, planarekin lortu nahi dabena holan laburbildu eben: "Eibarko Udalak hauxe nahi dau: euskeriak bizirautiaz gain, herritarren eguneroko hizkuntza gisa garatzeko bihar beste toki eta babes izatia, biziraupena bizi-indar billakatzeko. Holan, egunen batian euskeria Eibarren erregular erabiltzeko aukeria izango da, hau da, hala nahi dabenak euskeraz errez eta naturaltasunez bizitzeko aukeria izango dau".





abbiewhiteenglish@gmail.com 943203197 BISTA EDER 7 BEHEA - EIBAR

Miren Zulaika (musikaria)

"Eibarko kaleetan ez da oso ohikoa musika jotzea"

Miren Zulaika eibartarrak 5 urte daramatza Bartzelonan ikasten. Magisteritza egiten ari da ingelesez eta honekin batera, iaz Kantu-modernoko Gradu Profesionala bukatu zuen. Orain magisteritza egin artean, kantu klaseetara joaten jarraitzen du Liceo Kontserbatoriora. Musikaz gain, kirola eta bereziki futbola daude bere zaletasunen artean. Eibarren 8 bat urtez jokatu ostean aurten berriz ekin dio taldean jokatzeari.



- Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?

Amaren aldeko aitxitxak oso ondo abesten zuen eta amarengandik pasatuta neri ere iritsi zait zaletasuna. Eibarko musika eskolan hasi nituen musika-ikasketak. Hasieran akordeoiari heldu eta zeharkako txirula ere jo nuen. Orain batez ere gitarra eta pianoarekin geratu naiz, izan ere, kanturako asko laguntzen dute. Dena dela, nire instrumentu printzipala ahotsa da. Erreferentetzat ditut Whitney Houston, Aretha Franklin, eta musika beltza orokorrean.

- Eta musika-aldeekin ze esperientzia duzu?

Urte hauetan ikasketak uztartzearekin nahiko lan izan dut eta ez nuen denborarik, baina orain dela bi urte, lau pertsonako talde txiki bat sortu genuen Liceoko ikasle batzuek eta Bartzelonako taberna batzuetan joa genuen. Hala ere, bi taldekide joan egin behar izan ziren eta proiektu txiki hura bertan behera geratu zen. Bestalde, iaz, graduazioan, bakoitzak 45 minutuko lana aurkeztu behar zuen eta nik instrumentistak behar nituen musikarekin laguntzeko. Aukera eman zidaten nahi nuen estiloa hartzeko

eta soula aukeratu nuen. Errepertorio ona genuela iruditu zitzaigun eta udan Euskal Herrira joan eta bertan jotzea erabaki genuen Virgin Soul taldekook. Horrela nire kideek ere inguru euskaldunak ezagutzeko aukera izan zuten eta musika egin ez ondo pasatu dugu.

- Nolakoa izan da Eibarren jotzea?

Bira txikitxo bat egin genuen, Eibarren jotzeaz gain, Elgoibarren, Deban, Mutrikun, Orion eta Bergaran ere egon ginen. Honen aurretik ez nuen inoiz Eibarren aktuatu. Txikitan koroarekin eta bai, baina talde batekin ez. Esperientzia oso ona izan da, jendea oso pozik zegoen eta animo asko eman dizkigute. Uste dut zerbait desberdina izan dela herriko publikoarentzat; Eibarren ez da oso ohikoa kalean, poteo orduan eta taberna kanpoetan jotzea. Bartzelonan, kalean musikariak egotea normalagoa da eta asko eramaten da tabernetan jotzea. Tabernariak eki-poak edukitzen dituzte prest jendea instrumentuekin hara joan eta zerbait jotzeko. Eibarren eta inguruetan guk eraman izan dugu ekipoa leku batetik bestera. Hala ere bueltatzea nahi dugu, eta gabonetan lortuz gero, ziur Eibarren izango garela.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net



- Lora eta landare
natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29

Idea/proiekturik badaukazu... **On Ekin!**

EKINGUNE, Debabarrenako ekintzaileen arteko lankidetzaz eta promoziorako elkarteak ideia eta enpresa-proiektuak garatzeko "On Ekin" lehiaketaren 4. edizioa antolatu du. Antolatzaileek diotenez, "ekimenarekin sormena bultzatu nahi da eta, horretarako, pertsona zein enpresen ekimenak sarituko ditugu. Horrekin batera, proiektu zein ideiak garatzeko sortu berri diren enpresetan edota kontsolidatuta daudenetan hobekuntza prozesuak abian dituztenentzat diru-laguntza txiki bat egongo da". Horregatik, bi fasetan egingo duten lehiaketara gonbidatu nahi dute jendea.

Lehen fasea amaitzeko egun gutxi geratzen dira, datorren astean, urriaren 7an itxiko baita lehiaketarako proiektu eta ideiak jasotzeko epea. Beraz, lehiaketan parte hartzeko asmoa izanez gero, zuen lanak lehenbailehen aurkeztu beharko dituzuela gogorarazi dute arduradunek.

Aurkeztutako lan guztiak arlo sozial eta ekonomikoan diharduten hainbat ordezkari osatutako epai-mahaia aztertuko ditu eta, jarraian, epai-mahaikideek aurrebalorazioa egingo dute.

Eta bigarren fasea urriaren 20an egingo



lazio edizioako sarituen irudia.



da, egun horretarako antolatu duten afarian. Azaldu dutenez, "ekintzailetza modu batera edo bestera babesten duten guztiak izango dute afarian parte hartzeko aukera eta, gainera, ideia/proiektu onenaren aldeko botoa emateko aukera ere emanango diete. Horrela, azken erabakia modu demokratikoan hartuko dela bermatuko dugu". Horrekin batera, afarian "ekintzaile eta autonomoen arteko kontaktu-sarea sortu eta zabaltzeko aukera bikaina" izango

dela diote, "baita eskualdeko instituzioetako eta enpresa eta formazio arloko ordezkariekin ere".

Lehiaketan parte hartu nahi dutenentzat bete beharreko baldintzak eta bestelako argibideak Ekinguneren webgunean kontsultatzeko moduan daude, On Ekin atalean. Hortik kanpora ere, ekingune@ekingune.com helbidera idatzita edo 943 208 420 telefonora deituta ere eskuratu daitezke informazio gehiago.

Ondo pasatzeko beti prest

Kurtsu berria martxa betean hasi dute Indianokua gaztelokuan. Begiraleek esan dutenez, oportetatik bueltan gazte berri asko gerturatu dira lokala eta antolatzen dituzten jarduerak ezagutzera: "Aurreko asteburuan disparte eta Wii Dance jokoarekin ibili ginen. Dispartearekin barixakuan hasi ginen eta oraingoan globo bateri putz eginez airean ahalik eta denbora gehien egotea lortu behar zuten. Ez zen lan erraza izan, baina ahalegindu zirenek primeran pasatu zuten. 20 parte-hartzaile egon ziren eta Erlei nagusitu zen, globoa ia 10 segundotan airean egotea lortu zuen eta!".



DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA

BULEGOEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA

lbaitarte Industriagunea, 5 - 1.
ELGOIBAR
Basabe Industriagunea, EO-10 - 1.
ARETXABALETA
Tfnoa: 943 741 126
debabailarako@industrialdea.spri.es

www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)

KOLORLAN
PINTURAK



osasun DOSIAK



Iñaki elortza
BOTIKARIA

Glutena. Osasunaren etsai?

Denok ezagutzen dugu glutena jateari utzi dion norbait bere osasunean onuraren bat lortzeko asmoarekin. Glutena gure gaixotasun edo osasun arazo askoren errudun bilakatu omen da azken urteotan. Baina honek oinarri zientifikoren bat dauka edo moda besterik ez da? Hasteko esan dezagun glutena, gari, zekale, garagar eta beste zenbait zerealetan dagoen proteina bat besterik ez dela. Gizakiak zereal hauek duela milaka urtetatik kontsumitzen ditu, eta bere dietaren oinarri izan dira gainera. Beraz, glutenak gizakiarekin kontaktuan denbora asko daramala esan dezakegu. Zeliakoek, aldiz, glutenari alergia diote. Beste alergia mota batzuetan bezala, gorputzaren defentsak

glutenaren aurka egiten dute gure etsai izango balitz bezala. Alergia hau izateko arriskua gure geneetan idatzia dator. Kalkuluen arabera Europar biztanleriaren %1 da zeliakoa. Galdera erraza da beraz; zergatik uzten dio hainbeste jendeak glutena jateari orduan? Nire ustez bi arrazoi egon daitezke. Batetik, zeliakoek %75 diagnostikatu gabe dagoela kalkulaten da. Eta bestetik zeliakiak sortzen dituen sintomak era askotakoak izan daitezkeela; buruko mina, azal arazoak, depresioa, beherakoa, minbizia etab. (<http://www.celiacos.org/enfermedad-celiaca.html>). Horrek glutena gure osasun-arazo askoren erantzule izan daitekeela pentsarazten digu.



Guzti honek moda bat sortu du. Eta negozioia. Gehienok ez dugu inolako arazorik glutenarekin, baina glutenik gabeko produktu garestiak kontsumitzen ditugu gure osasunarentzat hobek direlakoan. Gehienetan inongo beharrik gabe. Elikadura arloko enpresak horretaz ohartu dira eta glutenik gabeko elikagaiak gero eta ugariagoak dira. Zorionez, gaur egun merkatuan prezio oneko test genetikoak agertzen ari dira zeliakia era erraz eta fidagarri batean diagnostikatu ahal izateko.

Emakumearen irudia gizartean

Aurtengo zinemaldia amaitu berri da eta Donostiak izar asko hartu ditu egunotan. Horieta bat, Monica Bellucci, hilaren 18an izan zen Donostian eta ETB2ko Teleberrin horren berri eman zuten. Horraino dena normala. Deigarria iruditu zitzaidana albistearen tonua izan zen, horrelako zerbait esan baitzuten: "Monica Bellucci, ederra ia 52 urterekin". Ondoren bere lanari buruz hitz egin zen, baina albistearen muina daukan adinarekin zein ederra eta gaztea dagoen izan zen. Gogaitu egin ninduen gehien

azpimarratzen zen ezaugarria bere edertasuna izaten. Nahiz eta hori egia izan, ez dut uste beharrezkoa denik albistearen titularrean jartzea, hutsalagoa den zerbait horrenbesteko garrantzia emanez. Eta gogaitu egin ninduen, batipat egun berean Donostiara Hugh Grant iritsi zelako eta albistearen ikuspegia ez zelako inondik inola berdina izan. Bere lanari buruz egin zuten berba, baina ez zuten esan "56 urterekin ederto mantentzen dela". Monica Belluccirekin bere itxura azpimarratzen da, eta Hugh Grantekin bere alde pro-



Arantza
alvarez
SEXOLOGOA

fesionala. Zerbait inozoa ematen duen arren, modu horretan emakumeari apaingarriaren rol soziala ematen jarraitzen dugu; eta gizona da gauza interesgarriak egiten dituena. Eta ez digu atentzioa deitzen neurri handi batean normalizatua daukagulako emakumearen fisikoa epaitzea, eta gizonarena ez hainbeste. Publizitatean, zineman eta umeendako ipuinetan, gure gizarteko adierazpen artistiko guztietan, gizonari historia-protagonismoa aitortu zaio, eta emakumeari, aldiz, ikusle pasibo (eta ederraren...l papera.

Albiste honen muinak emakumearen fisikoa izaten jarraitzen badu, emakumeen kasuan garrantzitsuena eder eta gazte egotea dela transmititzen jarraitzen dugu. Beste guztia bigarren mailakoa da. Gizonen kasuan, aldiz, garrantzitsuena euren jarduera profesionala da. Guztiak gara eragile hezitzaileak, gzarrean denok daukagu hezitzaile papera. Denok daukagu ardura lan honetan eta ñabardurak oso garrantzitsuak dira. Gauzak ez dira ematen duen bezain inozoak, eta horri buruzko kontzientzia hartu beharra daukagu.





**Urriak 1
zapatua**

TXOTX!



OKINDEGIA

URKO



23. edizioa > 2.340 sagardo botila > 200 kg.

BI TIKET mota


6 eurokoa

Edalontzia,
zapia,
pintxoak eta
**DASTATU
SAGARDOA**

1'5
eurokoa

Pintxoak:
txorizoa edo
gaztaia eta
menbriloa

Goiz eta arratsaldean: Udaletxeko plazan



#SagardoEguneko "selfie" lehiaketa

Seigarren urtez jarraian, aurten ere sare sozialetan jarraipen berezia egingo diogu biharko egunari, #SagardoEguna traola erabilita. Facebook-en, ... eta kitto!-ren orrialdean (www.facebook.com/etakittoaldizkaria) zein Twitter kontuan (@etakitto) Untzagan nolako giroa dagoen kontatzen, argazkiak sartzen... joango gara, zuekin partekatzen. Baina giroa bete-betean bizi duzuenak zuek zarete eta, horregatik, berriz ere Sagardo Eguneko

"korrensponsal" izatea eskatu nahi dizuegu, zuen komentario eta argazkiekin egunaren kronika paregabea osatzea lortuko dugu eta.

Iazkoaren bidetik, aurten ere "selfie" lehiaketa antolatu dugu eta, horregatik, argazkiak ateratzen "selfie" itxurakoak egitera eta gurekin partekatzen animatu nahi zaituztegu, irabazleak Gorenak elkarteko 13 sagardotegietako botila bana jasoko du. Zozketa urriaren 3an, datorren astelehenean egingo dugu.

Zuek bidalitako argazkiak eta gure argazkilariek egun osoan egindakoak batuta, egunari buruzko bilduma osatu eta Facebook-eko gure orrian ikusgai ipiniko ditugu bihar bertan. Animatu parte hartzera, sari ederra eraman dezakezue eta!



SAGARDOAREN
LURRALDEA

Iraganera begirada:

Deba eskualdeko sagardotegiak XX. mendearen hasieran

XX. mendearen hasieran sagardoaren sektorea une zailak bizitzen ari zen eta Frantzia, Ingalaterra eta Estatu Batuekin alde-ratuta, atzeratua zegoen. Gipuzkoako sagardogileek sagardoa egiteko oinarrizko moduak erabiltzen zituzten, tresneria zaharkitua zegoen eta ez zegoen atzerriko merkatuetarako kalitatezkoa eta lehiakorra izango zen sagardoa egiteko ezagutza zientifikorik.

Halere, sagardoak jarraitzaile asko zituen Gipuzkoan eta sagardoa kanilatik eta basoz-baso zerbitzatzen zuten sagardotegiak modan jarri ziren. Sasoi horretan, sagardotegiak aisialdirako gune eta txalaparta, bertsolariak, kirikoketa eta boloak bezalako jokoak ohikoak ziren gertakari sozialen eszenatoki bilakatu ziren.

Hala eta guztiz ere, eskasa zen probintzian sagarraren erosketa eta sagardoaren elaborazio nahiz salmentan jarduten zuten pertsonen kopurua. Gainera, herri gutxi batzuetan ardaztua eta lokalizatua zegoen jarduera zen, horien artean Mutriku, Deba eta Bergara herriak zeudelarik.

Negozioek banakako izaera zuten, Gipuzkoako sagarra erabiltzen zuten, beren produktua bertako edo probintziako merka-



tuak saltzen zuten eta eskuzko matxaka eta dolareak erabiltzen zituzten, nahiz eta sektorean berrikuntzarako saiakera batzuk agertzen hasiak ziren.

Gipuzkoako industria zergen erregistroek, 1903. eta 1923. urteen artean Mutriku sagardoaren elaborazio eta komertzializiora bideraturiko 8-13 establezimendu, Deban 4-14 eta Bergaran 5-11 zeudela erakusten dute.

Horiekin batera, eta agian Aldundiko nekazaritza politikak eta uzta oneko urte batzuen eraginez, 1910. hamarkadan sagardo-

aren elaborazioak bizi izan zuen hazkundearen mesedetan, beste herri batzuetan sagardo establezimenduak ireki zituzten, esaterako, Eskoriatzan.

Negozioen kopuruan zeuden gora behearen arrazoiak, tolaiek beren sagardoa ekoizteko Gipuzkoako sagarra bakarrik erabiltzen zutelaren zuten. Honek sagastiei eragin ziezazkien gertaera edo gaitzen aurrean oso ahulak izatea eragiten zuten, batez ere bi urtean behingo uzta oparoen ematearen eragina gehien nabaritzen duen zuhaitzetakoa sagarrondoa dela kontuan izanik. Beraz, sagardoaren elaborazioa bideratutako establezimendu horien kopurua merkatuaren eskaera eta probintzian zegoen lehengaiaren kopuruaren arabera-koa zen.

1923an Aldundiak bigarren sektorean jarduten zuten profesionalen artean galdetegi bat banatu zuen. Horri esker, urte horretan Mutriku sagardoaren elaborazioan jarduten zuten 33 pertsona zeudela eta horietako bat, ziurrenik merkatu berriak bereganatzeko asmoz, 500 litro sagardo "apardun" ekoiztera ausartu zela dakigu, baina ez zuten aurrera egin.

Gora gure sagardoa!!

Aurtengo berrikuntzak: SAGAR DASTAKETA eta KIRIKOKETA

Aurten plaza bakarra, udaletxekoa erabiliko da. Goizez, umeendako ohiko jokoekin batera, Untzagan bertan ipiniko den tolaletik irtengo den muztioa dastatzeko aukera izango da. Horrekin batera, Baztan inguruan sagardogileek erabiltzen zuten tresna, kirikoketa, bertatik bertara nola erabiltzen den erakutsiko dute (*hurrengo orrialdean*). Hori guztia txalapartariak eta Marisol Arrillagaren soinu-joleek giro-tuta. Egunean bertan lauzpabost sagar mota dastatzeko aukera emango zaio gerturatzen denari.



GOIZEZ:
12:00etatik 14:30era

ARRATSALDEZ:
19:00etatik amaitu arte
Edalontzi-salmenta
18:30ean hasiko da



13 sagardotegi Gorenak

Alorrenea (Astigarraga) Altzuetza (Hernani) Barkaiztegi (Donostia) Begiristain (Ikaztegieta) Egi-Luze (Errenteria) Gartziategi (Astigarraga) Gaztañaga (Andoain) Gurutzeta (Astigarraga) Isastegi (Tolosa) Olaizola (Hernani) Sarasola (Asteasu) Zapiain (Astigarraga) Zelaia (Hernani)

Kirikoketa-jaia, sagar-jotzearen doinu

Tolareko ohola eta sagarra jotzeko mazak edo pisoiak erabiltzen dira hots-tresnatzat edo bestela esanda, lan tresnak dira erabilitako soinu-tresnak

AURTENGO SAGARDO EGUNEKO BERRIKUNTZETAKO BAT KIRIKOKETA IZANGO DA. Untzaga plazan, txalaparta eta tolarearekin batera, Kirikoketa ezagutzeko aukera izango dugu.

Zer da Kirikoketa

Sagardoa egiteko sasoian, sagarra puskatzeko lanaren bukaerako jaia da. Kirikoketa-jotzea, funtsean, laneko tresnek, mazek, pats-oholak jotzerakoan egiten duten soinua da (hitz onomatopeikoa). Kirikoketa lanean erritmoari eusteko sortu zen, lana eramangarri egiteko. Eta horrela sortu zen, kirikoketa bera musika-tresna gisa. Bere kantuak ere baditu.

Lana egiteko tenorean ez ezik, lana bukatutakoan, etxeko atarian jotzen zen,



Musika tresna hau sagardoa ekoizteko garaian sagarrak prentsatzeko prozesuan erabilitako lanabesetatik dator.



gainerako bizilagunei lana bukatu zela iragartzeko, eta hori festa-giroan egiteko.

Sagardoa egiteko lanean ma-

kinak sartzearekin, eta batez ere sagarra xehetzeko makinak sartu zirenean, galtzen joan zen kirikoketa-doinua eta jai bera, ia-ia desagertzeraino. Baztanen, baina, eta bereziki Arizkunen, ohi-tura hori berreskuratzeko eta zabaltzeko lan handia egiten ari da azken urteotan.

Euskal musika tresna eta kirol askoren antzera lan jarduerekin loturik jaio zen. Musika-tresna hau zehazki sagardoa ekoizteko sasoian sagarrak prentsatzeko prozesuan erabilitako lanabesetatik dator. Lan hau burutzen zuten gizonek 8 egun inguru igaro ohi zituzten, amaitzean herriko enparantzan elkartu eta lanerako erabilitako lanabesak eskuan hartuz lan bukaera ospatu ohi zuten, kirikoketa joz. Honako doinu hau abestu ohi zuten: "Kirikoketa, kirikoketa, kirikoketa, koketa, koketa, sagarra jo dela, sagarra jo dela, sagarra jo dela, jo dela, jo dela".



Nafarroako iparraldeko Bortziriak eta Baztan eskualdeetako biztanleek mendez-mendez musika tresna hau jo izan dute, jada 1920ko hamarkadan galtzorian zegoelarik. Halere, euskal kulturak jasandako berpizkudeari esker eta 1960ko hamarkadatik aurrera gai honen inguruan euskaltzale eta kulturazaleek egindako berreskurapen-lanari esker, musika tresna erabat ezezaguna izatetik, berpizkundera iragan da, nahiz eta oraindik ere txalaparta baino maila apalagoa izan.





Omenaldia egingo diote Alex Aranzabali urriaren 7an

Eibarren Lagunak plataformak eta Keko Gontan peñak antolatutako Alex Aranzabalen omenezko afarirako plaza guztiak bete dira dagoeneko. Datorren asteko barixakuan, urriaren 7an, Hotel Unzagan egingo den ekitaldiak arrakasta handia izan du antolatzaileen esanetan, 180 lagunendako edukiera betetzera. Hor izango dira Eibar FT-ko peña guztiak Aranzabalen lagun, senide, lankide, jokalaria-ohi, kazetari, zaletu eta zuzendaritzako kide-ohiak eta gaur egungoekin batera. Ekitaldi horretan Alexek 2009tik 2016ra arte egindako lanari errekonozimendua egin nahi diote, *"kudeaketa eredu berriztailearen"* aitzindaria izan zenari. Informazio gehiagorako: amigossdeibar@gmail.com

Klubaren ekimen berezia

Aurrekoetz gain, Eibar KE-k presidente, zuzendari, entrenatzaile eta jokalaria izandako guztiak omendu nahi ditu, *"eurak direlako oraingo arrakastara iristeko eragile nagusiak"*. Klubaren 75. Urteurrenaren inguruan Eibar KE-ko Fundazioak antolatutako ekimen hori taldeak Ipuruan jokatzeke duen partidu baten egunean egingo da, bazkaldu eta gero taldea animatzera joateko asmoa dutelako antolatzaileek. Klubak bere gain hartuko ditu gastu guztiak -bazkaria barne-, baina izena emateko 15 euro ordaindu behar da ES83 0138 0005 1400 1056 1744 kontuan (bildutako diru hori ongintzazko xedeetarako erabiliko da).

Katu-Kalek asmo berriekin ekin dio denboraldiari

Saskibaloiko gure herriko talde bakarrak irailaren lehen astean ekin zion denboraldiari, orduan hasi ziren entrenamendu saioekin. Taldeak ez du aurpegi berririk, baina aldaketa batzuk egiteko asmoa erakutsi du, jakina, galdutako maila berreskuratzeko ilusioarekin batera. Benetako ordurako prestatze bide horretan bihar izango du lehen erronka, Ipurua kiroldegian partidu bakarrera jokatuko den Kopa lehiaketaren partiduarekin: 18:15ean hasiko den norgehiagokan Cafes Aitona B hartuko dute eibartarrek, torneoan jarraitzeko itxaropenarekin.

Katu-Kalek, gainera, Multikirolak egitarauan hartuko du parte oraingoan, gazteenen artean saskibaloia sustatzeko ahaleginean. Hor sartzen dira klubak antolatuko dituen ate zabaleko jardunaldiak: eskualde mailakoak izango dira eta neska-mutilen artean harrobi-lana egiteko helburuarekin antolatuko dira.



Galdutako maila berreskuratzea izango da Katu-Kaleren helburua.

Gisasolatarrak nagusi berriro ere ehiza txapelketan

Aurreko zapatuan, hilaren 24an, Santa Cruz de Fierron jokatutako txapelketan Debabarreneko ehiztari onenak bildu ziren, tartean Eibar, Elgoibar eta Mendaroko ordezkariak. Gure herriko Diana elkartekoak nagusitu ziren oraingoan ere, Gisasolatarraren lan onari esker. Iazkoari jarraituta, Jose Luis eta Iñigo aitasemeek irabazi zituzten, hurrenez hurren, beterranoen eta seniorren mailetako txapelak. Seniorretan Iñigok sei eper lortu zituen eta Jose Luis Campe (bigarrena, lau eperrekin) eta Enrike Isasi (laugarrena, hirurekin) taldekideek ere bikain jardun zuten. Jose Luis Gisasola, bestalde, beterranoetan nagusitu zen, lau eperrekin. Etzi jokatuko den Gipuz-



koako txapelketan izango dira aipatutako Diana-ko ehiztari guztiak; Iñigok, gainera, iaz eskuratutako txapelari eutsi nahiko dio.

Manixek Burgosekin fitxatu du

Bi denboraldi bikain Tudelanorekin egin eta gero, Javier Mandiola eibartarrek 2. B mailako Burgos hartuko du denboraldi amaierara arte. Talde gaztelaua bere multzoko azken sailkatua da egun eta, hori dela-eta, zuzendaritzak Paco Fernandez bere kargutik kanporatzea erabaki du. Manix aurretik ere izan zen Burgosen, orduan jokalaria moduan 1982-83 kanpainen. Burgosek orain arte jokatutako sei partiduetatik bost galdu ditu eta bestea berdindu.



Emakumezkoen taldea herriko waterpoloan

Kostata izan bada ere, azkenean emakumezkoen taldea izango du Urbatek hastear dagoen denboraldian. Gaur bertan aurkeztuko ditu klubak, arratsaldeko 18:30ean, Urkotronik-ek Matsarian dituen instalazioetan, waterpoloan hurrengo denboraldian jardungo duten talde guztiak. Guztira, zazpi ekipo izango dituzte eibartarrek: seniorreko hiru (Euskal Herriko 1. Mailan jokatuko duten gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak eta 2. Mailan jokatu duen gizonezkoen B taldea), kadeteetako gizonezkoena (EHko Mailan) eta infantil, alebin eta benjamin mailetako talde mistoak. Infantilak EH mailan lehiatuko dute, alebinak Gipuzkoa-ko Ligan eta benjaminak torneoetan saiatuko dira.

Triatloilariak jo eta su hainbat frontetan

Delteco Eibar Triatloiko talde-ideek geratu barik dihardute azken asteburuotan. Beteranoetatik hasita, Iñigo Unanue Mallorcano Ironmanean lehiatu zen aurreko asteburuan, eta amaitzeko 9 ordu eta 41 minutu behar izan zituen proba osatzeko. Ia 4 kilometro egin zituen igerian (3,8), bizikletan 180 eta maratoia (42 kilometro) antxintxiketan. Saillkapen orokorrean 125. postuan amaitu zuen eibartarrak, baina bere mailan bosgarren onena.

Donostian, bestalde, domekan jokatuako distantzia olinpikoko (kilometro eta erdi igerian, 40 bizikletan eta 10 korrika) 31. Ondituz Oroituz Triatloian, Pello Osoro eibartarra ikusgarri ibili zen beste behin eta bigarren amaitu zuen (1h59'07"). Emakumezkoetan ere lan bikaina egin zuten Aitziber Urkiolak (zortzigarrena izan zen) eta Ane Ziaranek (hamargarrena). Eta Valtierako duatloian izan ziren Deltecoko beste bi ordezkari, proba amaitzea lortu zuten Roberto Gartzia eta Gonzalo Saez.



Urkiola eta Ziaran igerian irteteko prest.

Garajes Garcia liderra foball-zaletuan

Bi jardunaldi jokatu dira KirolBet liga torneoan eta Garajes Garcia.com da bietan garaile izan den talde bakarra. L.P. Machado Tankemans denboraldiko lehen liderrari 4-1 irabazi zion aurreko domekan eta lidergoa eskuratu du, bi puntura duen laukotearen aurrean (Durango, Sporting, Bar Txoko eta Alkideba). Honakoa izango da asteburuko jardunaldia: bihar, Ipur-Slow, Esmorga-Arkupe, Tankemans-EzDok eta Areto-Kontent; eta etzi, Sporting-Garajes, Durango-Txoko eta Azkena-Alkideba.



Ipuruako gimnastek notarekin hasi zuten denboraldia Donostian

Aurreko zapatuan jokatu VIII. Izar Leku Torneoan Ipurua Klubeko hiru taldek hartu zuten parte eta hirurak lau lehenen artean saillatu ziren euren mailetan. Ainhoa Bizkarrak, Izaro Ibarrek, Sara Etxaburuk, Ana Portuk eta Sara Arangurenek osatutako infantil oinarrizko 2 taldea bigarrena saillatu zen eta maila bereko 1 taldeak laugarren amaitu zuen, hirugarrenarengandik hamarreko bakarrera. Bi talde horiek azaroan Valladoliden jokatu den gimnasia erritmikako Espainiako Txapelketan parte hartzeko helburua dute eta, horretarako, bost pare mazedekin dihardute euren ariketetan.

Senior absolutu mailako talde federatua izan zen hirugarrena Donostian. Azken bi denboraldietan ez du maila horretako talderik kaleratu Ipuruak eta oraingoan, berriro urrats

hori egiteko, kadete oinarri mailako Espainiako azpitxapel-dun ez baliatu da Ipurua: Elene Varelak, Elena Sodupe, Nahia Arguizek eta Malen Txurrukak osatutako laukoteari Jennifer

Hernandez eta Jugatxi Jimenez gehitu zaizkio hor lehiatzeko. Taldeak bost zintekin egindako ariketa dihardu prestatzen Murtzian abenduan jokatu den Espainiako Txapelketari begira.

Aipatutako hiru taldeek Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan hartuko dute parte eta, horrez gain, baita urriaren 22an jokatu den Euskalgymean eta handik astebetera, urriaren 29an, Eibarren jokatu den San Andres Torneoan. Aurrekoekin batera, Tania Nagornaiaren talde teknikoaren aginduetara dihardute lanean eskola mailako beste 50 gimnastak.



Izar Leku Torneoan zilarrezko domina eskuratu zuen Ipuruako boskotea.



Eibarrek etzi jokatu du Santiago Bernabeun (16:15)

Mendilibarren taldeak Santiago Bernabeu bisitatu du domekan Zinedine Zidaneren taldeari aurre egiteko. Eibartarrek hamar puntu lortu dituzte jokatuako sei jardunaldietan, iaz jardunaldi berean baino puntu bat gehiago. Hurrengo asteburuan partidurik ez dela egongo aprobetxatuz, lagunartekoa antolatu dute Leganes 1. Mailara igo berriaren aurka. Hitzordua hurrengo eguerako da, urriaren 6rako, arratsaldeko 18:00etan Burgosko Lerna herriko Arlanzako udal estadioan.



IV. Asier Cuevas herri-lasterketa urriaren 22an jokatu da

Eibarko Klub Deportiboaren aurrean hasiko da, ohikoa denez, aipatutako lasterketa hori. Eta zapatu horretan 18:00etan hasiko den herri-proban izena emateko epea lasterketaren bezpera arte egongo da zabalik, urriaren 21eko 20:00ak arte; izena ematekoan 10 euro ordaindu beharko da. Asier Cuevas munduko eta Europako txapeldunordeari ondo merezitako omenaldia egiteko ekitaldiak laugarren edizioa biziko du eta antolatzaileek parte-harteari buruzko aurreko urteetako maila arrakastatsuan jarraitzea espero dute. Izena www.saikape-nak.com helbidean eman daiteke eta baita eguaztene-ro (19:30-20:30) Deporren edo, bestela, kiroldegian jasotako papera eta 10 euro kartazal batean sartu eta Deporrek tabernan laga. Txipak eta dortsalak jasotzeko, bestalde, probaren egunean izango da aukera: goizez (11:00-13:00) edo arratsaldez (15:15-17:15).



Txirrindularien agurra denboraldiari

Eibarko Klub Deportibotik sustatutako Eibar Energia Hiria afizionatu mailako txirrindulari taldeak Zaldibian amaitu zuen denboraldia aurreko domekan, han jokatu zen probarekin. Lizarte taldeko Sergio Samitierrek irabazitako proban, Eibarko taldeak bosgarren postua eskuratu zuen taldeko saikapean, taldeko hiru onenen postuei esker: Onditz Urruzmendi 15.a izan zen, Koldo Armendariz 20.a eta Victor Cordon, taldeko ordezkaririk onenak azken denboraldian, 30. postuan amaitu zuen lasterketa.

giltzak
 SEGURIDAD



Segurtasun handiko ate berriak betiko profesionaltasunarekin.

Zatoz eta informa zaitetz!

www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Arragueta, 3 - Eibar

943 70 13 91



Funeraria·Ehortzetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
 erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
 Taldea

GRUPO
Funeuskadi

Juan Palacios zinemagile eibartarraren "Pedaló" lehen film luzeak Irizar Saria irabazi du Donostiako Zinemaldiaren 64. edizioaren barruan. Egun Kopenhagen bizi den Euskal Zinemaren arloko sari nagusiaren irabazleak gaurdaino bideo esperimentalarekin, ikusizko egunkariekin, film-saiakerekin eta behaketa-dokumentalekin egin du lan. Bere filmek naturaren eta giza kulturaren arteko mugak aztertzen dituzte, baita zinematografiako prozesua bera ere. Saritutako lanean bigarren eskuko pedaló batean igota hiru lagunek Euskal Herriko kostatik egiten duten 150 kilometroko ibilbidea kontatzen du, hiru "marinel" horien espedizioa dokumentatuz. Ehun ordu grabatu zituen.

- Ezustea izateaz gain, zer da sari hau zuzentzat? Zertan lagundu zaitzake?

Donostiako Zinemaldian egotea bakarrik nahiko sari da berez. Etxean egindako produktua besterik ez da izan aurkeztu duguna, lagunaren artean konpartitzeko balio izan diguna. Interes handia piztu du hasieratik eta sarrerak lortzeko mugimendu asko nabaritu zen. 20.000 euroko sariari esker beste proiektu batzuetan sartzeko aukera eskainiko dut. Horrez gain, nigan gehiago sinesteko balioa dit eta, zer esanik ez, baita denbora irabazteko eta baldintza hobea goetean lan egiteko ere. Diru barik hasi nintzen istorio honetan eta orain ate batzuk irekiko zaizkidalakoan nago.



Maite Arroitajauregi eibartarra sekzioko epaimahaikidea izan da.

JUAN PALACIOS (ZINEMAGILEA):

"Pedaló" Eibarren ikusteko aukera izango dugula espero dut"



- Ezustekin jarraituta, zure lanak izan duen ibilbidea nahiko berezia izan da. Baztertua geratzeko zorian ere izan zen, hor gordeta... Badira urte batzuk Pedaló errodatu zenutela...

Egia da. Errodajea 2012koa da. Pelikula ez zetorren bat hasieran pentsatutakoarekin. Nire buruan idealizatu eta erromantizatu egin nuen proiektua eta hor egin nuen topo lehenengo ezustekoarekin. Esaten da ba "urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau!": horrelako zeozer gertatu zitzidan. Baina, behin grabatzen hasita, "jarraitu beharko dut" esan nion nire buruari. Azkenean, lau aste eman nituen errodatzen. Emaiztarekin, jakina, ez nintzen pozik geratu; eta

ez nekien esku artean nuen zelan kontatu, zatiak besterik ez baintuen, apurtutako zatiak gainera. Huskeriak iruditzen zitzaizkidan, baina konturatzen hasi nintzen euren guztien artean bazeudela oso benetakoak ziren gauzak. Guzti horiei osotasun moduko bat emateko gauza nintzela sinestuta, azkenean zeozer autentikoa egin dugulakoan nago.

- Zer da aipagarriena Pedaló-n? Ahalegindu zara bizitzak, sentimenduak, adierazten... baina ingurugiroa eta arduratzen zaituzten bestelako gaiak ere ez dituzu baztertu.

Nire ustez, bi geruza modukoak nabaritu-ko nituzke dokumentalean: abentura, alde batetik, eta saiakera, bestetik. Bi generoen konbinazioa dagoela esango nuke. Formari dagokionez, lan era berezia egin dugu. Istoriari dagokionez, bestalde, domingeroa eta absurdoa dela esan dezakegu beldurrik gabe. Puntu patetikoa ere badu 30 urteren bueltan diren hiru lagunek horrelako zeozer bizitzera animatzea. Eta zer esanik ez ni neu, zuzendari bezala, hor egotea: lan absurdo bezain poetikoa eginez.

- Lan neketsua izango zen zurea, ia dena zure gainean erori zelako. Hala ere, laguntza ere jaso izan duzu, ezta? Eskerrak behintzat banatu zenituen saria jasotzera igo zinenean...

Editore, produktore, argazkiak, soinua... bai, lan guzti horietan jardun izan dut. Baina errealitatea da hainbat mesede ere jaso ditudala: kredituak egiteko, posterra bera osatzeko... Arreba-eta izan ditut ondoan, Arte Ederrak egin ditu eta laguntzeko prest zegoen.

- Zure aitaren kurrikuluma ere ez da nolana nahikoa argazkigintza munduan, ezagutzen dugunez. Berarekin egin duzu lanik?

Ba bai, bera ere izan da laguntzen. Plano batzuk berak egindakoak dira. Igartzen diren bereak zeintzuk diren? Amak ondo harrapatu ditu, ezagutzeko gauza izan da. Baina gauza ezberdinak dira zinema eta argazkigintza, badago alderik.

- Baduzu antzeko erronkei eusteko asmo berririk? Zeintzuk izan daitezke zure hurrengo proiektuak?

Argi dut pelikula gehiago egin nahi ditudala. Eskuartearen badut luzemetraia bat egiteko proiektua, diru gehiagorekin eta talde handiago batekin. Ea hurrengo udarako gauza garen errealitate bihurtzeko!

- Eibarrera bueltatzeko asmorik? Gogorik bai?

Behin baino gehiagotan jardun izan dut horren inguruan. Ez dut uste Kopenhagen betirako geratuko naizenik... Itzulita ere, ez dakit Eibarrera izango zen edo beste norabaitera. Udan, behintzat, etxera bueltatu naiz. Eta ondo.

- Zure burua zertxobait auspotezko behintzat balioko zizun lortutakoak. Ideia txikiakin ere gauza handietara iristeko aukera hor dagoela sinesteko... Ez ba?

Zurikerietan ibili barik, onartu behar dugu pelikula oso txikia dela gurea. Umiltasunetik, ez dago beste biderik-eta: milioitik gorako aurrekontuekin egiten diren gauzen artean, gure pelikulak 2.000 euroko kostoa izan zuen. Emaitzak bai eskaintzen digula bide horretatik jarraitzeko konfiantza. Zinemaldian bizi izan genuena horren adierazgarri da: sarrerak egun guztietan agortu ziren. Eta, benetako lagunetik aparte, jendearekin konektatzea lortu dugu. Hain bakarrik egindako proiektuaren hizkuntza berezi hori jendeak ulertzea arrakastatsua da. Kodifikazioan asmatu dugu eta funtzionatu du.

- Zure lana aurkezteko eskatuko bagenuzu, zer esango zenioke jendeari? Zer atarako du ikusleak dokumentaletik?

Benetako pelikula dela, oso egiazkoa. Istorioko, gauza hunkigarriak kontatzen dituen neurrian, umoretik ere asko duela. Emozio-



Palaciosen laneko hiru protagonistak dokumentalaren une batean.

Eibarko egileak, Ultramar Collective bere talde artistikoarekin, egin zuen "Chelonia memoriae" bere lehen film laburra Madrilgo Reina Sofia bideo-bildumarako hautatu zuten. Horrez gain, bai "The Tibetan Spider"-ek bai "Corte profundo" filmak Nafarroako CTL zinema jaialdia irabazi zuten 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren.

en espektro handira heltzen dela eta gora-behera asko eskaintzen dituela, pedaleoaren martxa berean. Nahikoa esan dizut, oso saltzaile eskasa naiz-eta.

- Hemendik aurrera, zelako bidea izango du dokumentalak? Non ikusi ahal izango da?

Ideia jaialdietatik mugitzea da, baita atzerrian ere. Nahiko Euskal Herrikoa da lana eta kanpotik ikusita exotikoa suerta daiteke, baita utopikoa ere. Euskal Herrian posiblea izanda ere, baditu puntu arraroak, surrealista ere deitu daitezkeenak. Hori bai, atsegina da eta erraza ikusteko, edonorentzat aproposa. Gustatuko litzaiguke zineetan sartzeta eta produktoreak tour antzerakoa egiteko asmoa du kostaldeko herrietatik, dokumentala aire librean ikusteko aukera eskainita. Eibarren ikusteko aukera izango dela espero dut.

**Zure enpresa erakusteko
leku aparta**

GIDA
KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus





SERGIO GONZALEZ
(nekazaria)

“Oso garrantzitsua da jaten dugunaren jatorria ezagutzea”

...eta kitto!-k antolatuta urriaren 19an tomate-dastaketa saioa egingo da 19:00etan ...eta kitto!-n. Ortutik Ahora elkarteko Sergio Gonzalez izango da dastaketa zuzenduko duena. Euskal Herriko hazien sarean 30 tomate mota baino gehiago daude erregistratuta; hala ere, Gonzalezen hitzetan, gehienek supermerkatuan dagoen mota bakan hori kontsumitzen dute bakarrik. Horrez gain, jendeak barazki gutxi kontsumitzen dituela adierazi du Sergio Gonzalezek eta beraz, janariaz baliatuz nekazarien arazoak ere mahai gainera ekarriko ditu. **Izena emateko epea urriaren 3an zabalduko da (943200918).**

- Zer ikasteko aukera egongo da antolatutako dastaketan?

Dastaketa honetan hemengo tomate barietateak ezagutzeko aukera izango dugu. Aurten egin ditugun dastaketetan konturatu gara jendeak ez dituela hemengo tomate barietateak ezagutzen. Ez dakite geure tomate mota propioak ere baditugula, esaterako Busturiako Pikeluze tomatea. Dastaketa hauetan, beraz, tomate klaseak ezagutu eta probatu egiten ditugu, ondoren bakoitzaren ezagutgarriak ondo bereizteko. Horrela konturatu gaitezke batzuk agian aproposagoak direla saltsarako, edo beste batzuk entsaladarako edota kontserbatzeko...

- Zergatik tomatea?

Jende pila bat dago tomatea gogoko duena, tomatea erregina izaten da eta gainera sasoiak da orain. Dena dela, beste produktu batzuekin ere egin daiteke, azekin adibidez. Aza mota asko daude hemen ere eta inork ez ditu ezagutzen. Dibertsitate handia daukagu baina ez gara horretaz jabetzen supermerkatuetan erosten badugu. Enpresa agroindustrialek erabakitzen dute nolako produktuak nahi dituzten supermerkatuetan. Tomateen kasuan, garraiatzeko errazak diren tomateak aukeratzen dituzte (berdeak izaten dira, bestela zapalduta ailegatzen dira) eta gainera guztiak tamaina berekoak (kaxetan ondo sailkatzeko). Guk tomatea aukeratzeko

orduan, kontsumitzaile bezala, koloreari edo usainari erreparatzen diogu besteak beste, baina supermerkatuetan badakite erosi egingo dugula, ez dagoelako beste aukerarik.


- Nora jo behar da orduan, bestelako produktuak erosteko?

Merkatuera, azoketara, eta horiek goizetan badira eta ezin bada, hiri eta herri askotan daude denda ekologikoak. Baserritarrekin jartzen dira kontaktuan eta horrela komertzializazio zirkuito motza lortzen da. Jaten dugunaren jatorria ezagutzea oso garrantzitsua da eta jakin egin behar dugu Euskal Herriko nekazariak mantentzen dituztela gure mendiak.



Hilketak salatzeko poesia-saioa

Datorren asteko egunean ekingo diote ikasturteari Itzamna poesia-tailerrekoek eta, horretarako, Mexikoko Ciudad Juarez hildako emakumeen heriotzak salatzeko poemak irakurtzeko saioa egingo dute, 19:00etatik 20:00etara, Bittor Sarasketa kalean dagoen Itzamna akademian. Asmo horri helduta munduko herrialde ezberdinetan antzerako saioak antolatu dituzte eta eibartarrek ere ekimenarekin bat egin nahi izan dute.



Pagatxaren ikastaro eta tailerrak

Pagatxa emakume taldeak interes handiko hainbat ekintza soziokultural antolatu ditu 2016/2017 ikasturterako: irakurketa-tailerra, idazle-tailerra, eskulanak, yoga, ingelesa, arnasketa, euskal dantzak (hastapena eta maila aurreratua), zine-foruma (hil bakoitzeko lehen barixakuan, datorren hilean izan ezik; lehen saioa urriaren 14an izango da, “Las chicas de la lenceria” pelikularekin) eta “Emakume-Historiak” tailerra, Leticia Martínez Alcocer historialariaren eskutik. Informazio gehiagorako eta ekintzetan parte hartzeko, asociacionpagatxa@yahoo.es helbidera idatzi edo, bestela, Andretxeara deitu (943 70 08 28 telefono zenbakira).




Su ta Gar-en disko berria bidean

Indarra eta gozotasuna nahastu egingo dira Su ta Gar taldearen hurrengo lanean: taldeak prestatzen diharduen diskoak "Maitasunari pasioa" izenburua izango du eta, aurreratu dutenez, taldearen 28 urteko ibilbidean egin duten "diskorik ezberdinena" izango da.

Mendiak aplikazio berria kalean

Mendian galtzeko arrisku gutxiago izango dute aurrerantzean euskal mendizaleek. Izan ere, Euskal Herriko 1.500 gailurren informazioa biltzen duen aplikazioa sortu baitu Interneteko proiektuen garapenak egiten dituen Eibarko CodeSyntax enpresak. Euskal Herriko gailur nagusietako informazioa jaso ez ezik, sare sozial gisa ere funtzionatzen duen aplikazioa Android sistema eragilearen Play Store plataforman dago eskuragai. Gailur nagusien zerrenda, fitxa, datu, argazki eta kokapenarekin batera, 1.500 mendien artean bilaketa egiterakoan iragazkiak erabili ahalko dira: gertukoak zeintzuk diren, garaienak, haurrekin igotzeko modukoak... Uudara aurretik sortu zuten euskara hutsean dagoen aplikazioa eta proba fasean egon da ordutik, aurreko astelehenean ofizialki aurkeztu zuten arte. Hilabete horietan izandako harrera "harrigarria" izan da aplikazioa garatu dutenen esanetan.



Kezkaren ikastaroak helduentzat

Euskal dantzak ikasi nahi dituzten helduentzat ikastaroak emango ditu **Kezka dantza taldeak** ikasturte honetarako. Klaseak Portalean emanago dituzte, urritik maiatzera bitartean, hainbat egun eta ordutan: hasiberrientzat martitzenetan (19:00etatik 20:00etara), eguenetan (10:00etatik 11:30era) eta barixakuetan (17:00etatik 18:30era), aukeran; eta jarraipen taldeentzat, berriz, martitzenetan (10:00etatik 11:30era eta 20:00etatik 21:00etara) eta barixakuetan (18:30etik 20:00etara). Informazio gehiagorako eta izena emateko 943 53 04 40 telefonora deitu ala kezka@dantzatan.com helbidera idatzi.

Bertso-paper lehiaketa ate joka

XXII. San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak entregatzeko epea urriaren 3an, astelehena, hasi eta azaroaren 7an, astelehena amaituko da. Hona hemen betebeharrekoak eta sariak:

MAILA	LANAK	SARIAK
16 urtetik gora (Euskal Herri mailan)	4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (10 gehienez)	1.- 300 € eta txapela 2.- 250 € eta plaka
16 urtetik behera (Eibarko ikasleak)	Bertso bat edo bi kopia	1.- Liburua eta txapela 2.- Liburua eta plaka

Gaia eta doinua libreak izango dira eta lanaren hiru kopia bidali beharko dira gaitzizenarekin sinatuta. Gutunazal itxi batean gaitzizena identifikatzeko datuak sartuko dira: izen-abizenak, telefonoa eta adina. Taldean egindako lanik ez da onartuko eta bertsoak postaz bidali edota norberak ekar ditzake ...eta kitto!-ra (Urkizu 11 solairuartea, 20600 Eibar).

Epaimahaia azaroaren 18an emango ditu ezagutzera irabazleen izenak, eta azaroaren 27an, domeka, Portalean egingo den San Andres Bertso jaialdian banatuko dira sariak.

Untzagako Jubilatua berbalagun bila

Untzagako Jubilatuen Elkartek ere bat egin du ...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan mintzapraktikako egitasmoarekin eta berbalagun bila dabil, bertan ere taldeak osatu eta martxan jartzeko. Taldeak astelehenetan elkartuko dira elkarteko tabernan 11:00etatik 12:00etara. Izena bertako bulegoan eman daiteke ohiko ordutegian.



Bertso-saio musikatua

Hankamotxak bertso-eskolak bertso-saio musikatua antolatu du gaurko Txaltxa Zelaian, 22:30ean (euria egingo balu Portalean egingo da): Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza, Oihana Iguaran eta Manu Goigana bertsolariek, Haritz Casabal gai-jartzaileak, Ixak Arrutik (gitarrarekin) eta Eneko Sierrak (saxofoiarekin) hartuko dute parte saioan eta doan izango da.



ANE URKIOLA

Amataxun telefonu, txo!

"Tabernara sartu orduko, IATa pasa dio lekuari komunikatzaile gazteak. Ez, ez du hain modan dagoen Leipzig-eko atrezzoak txunditu. Ez du palet-ekin egindako mahai edota aulki bakoiti multzoak harritu. Bertako zerbitzarien bizar basatia ere ez da sorpresa, arren.

Eskanerra amaitu orduko, zurito bat eskatu du. Gozoa ala mingotsa nahiago duen galdetzean edozein erantzun du, ahopeka, urduri. Izan ere, oraindik ez daki entxuferik egongo ote den espazio berri horretan, eta ezin du bere ezinegona inolaz ere disimulatu." Egun, edozein senti daiteke deseroso segapotoan bateria barik geratzen denean, bai. Baina komunikatzaile batentzako dramatikoia izan daiteke, benetan diñotsuet. Oinarrizko erraminta bilakatu baita mugikor madarikatua. Bertan baitaude kontaktu, apunte, albiste, helbide, kamera, mikrofono, mezu, linea eta garun erdia. Gadget-en esku hura baino ezinbestekoagoa bihurtu da gailu multifuntzionala.

Baina ez ote ari gara ditxosozko erramintaren morroiak bilakatzen? Noraino kudeatu genezake, guk geuk, gure intimitatea? Nola izan erabilgarri estres larregi pairatu barik? Gai al gara etengabeko estimulu digitaletatik at parean dugunari begietara begiratu eta kafe beroaz gozatzeko? Non geratu da hortik zehar, pista barik, galtzeko ideia erromantiko polit hori?

Konponbideak? Ugari eta asmatzeak. Bien bitartean, lantzean behin, atxixkek gabon batzutan esan zidan moduan: "Zertzuk dabizuz? Amataxun telefonu, txo!"

Anjel Lertxundirekin hasiko da Harixa Emoten

Datorren asteko martitzenean hasiko du ikasturtea Harixa Emoten euskerazko irakurketa taldeak, 19:00etan Portalean. Lehen saiorako aukeratu duten idazle gonbidatua Anjel Lertxundi da eta "Zu" liburua aztertuko dute irakurleek, lanaren egilearekin batera. Saio hau irekia izango da eta, beraz, interesa duen edozeinek izango du parte hartzeko aukera, baita taldeko kide ez direnek ere.

Eibarko liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatzen duten egitasmoan parte hartzen duten ki-deak hilean behin elkartzen dira Portalean, Kulturako bilera gelan 19:00etatik 20:00etara eta saio horietan idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskaitzen die, aurrez aurreko solasaldien bitartez eta Antxon Narbaizaren laguntza izaten dute ere




liburuaren mamia ateratzeko. Ikasturte honetan idazle hauek hartuko dute parte literatur saioetan: Asier Serrano (azaroak 8), Joxemari Iturralde (abendua 13), Alaine Agirre (urtarrilak 3), Bea Salaberri (otsailak 7), Goizalde Landabaso (martxoak 7), Arrate Egaña (apirilak 4) eta Pello Lizarralde (maiatzak 2).

Argazkigintza-ikastarorako izen-ematea ixtear

Astelehenean, urriaren 3an, itxiko da argazkigintza digitaletako hastapen ikastaroan izena emateko epea. Eibarko Klub Deportiboak urtero eskaintzen duen horretan, argazkigintza digitala ezagutzeaz gain, oinarrizko kontzeptuak eta teknikak ere ikasiko dira baliabide informatikoak erabiliz. Guztira 30 ordu teoriko-praktiko izango

ditu ikastaroak, 12 egunetan banatuta: urriaren 17an hasiko dira klaseak eta azaroaren 28an amaituko, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 21:30etara arte. Jose Valderrey kazetari eta argazkilariak Portalean eskainiko ditu klase horiek eta, gehienez jota ere, 16 ikasle izango ditu. Eibarren erroldatutakoek 47 euro ordaindu

beharko dute eta kanpotarrek 79 euro. Ikastaroaren egitaraua honako zortzi atalek osatzen dute: 1) Sarrera; 2) Objektiboak. Foku-distantzia; 3) Kamararen erabilera; 4) Argazki konposaketa. Ikustearren artea; 5) Kamaratik ordenagailura; 6) Irudien difusioa; 7) Praktikak kanpoan; eta 8) Ikasturte amaierako erakusketa.




Bertso literarioak Andretxean

Gaur 19:00etatik aurrera "Testurak" bertso literarioen saioa hartuko du Andretxeak. Ainhoa Agirreazaldeg, Onintza Enbeita, Izarne Zelaia eta Saioa Alkaiza bertsolariak jardungo dute gaurkoan, "hainbat idazle eta sortzairenen testuak ahotan eta bertsoan hartuta" eta sarrera nahi duten guztientzat zabalik eta doan izango da. Emakumeen Etxeen Sareak sortu duen ekimena Eibarren abiatuko da gaur eta abenduaren 1era arte herririk herri ibiliko dira emakume bertsolariak emakumeen testu literarioak oinarri hartuta.

Proiektua Emakumeen Etxetatik egindako eskaeri erantzuna emateko abiarazi zuten, "etxe hauek guztiak lotuko zituen proiektu bat egiteko beharra zutelako. Denetan berdina eta denetan ezberdina izango zen formatoa behar zuten eta eskari horri erantzuteko jarri ziren martxan hainbat bertsolari". Bide batez, saio arruntetan gutxitan ematen den egoera bermatzen dute: emakumeen artean kantatzea.





Biraka Dantza SORALUZEN

Gaur arratsaldean, 19:30ean Biraka Dantza taldeak erakustaldia egingo du Soraluzeko kiroldegian. Eibar, Mendaro eta Elgoibarko dantza- eskolan diharduten ikasleek osatzen duten taldea da Biraka eta erakustaldia Soraluzen aurten martxan jarriko den dantza- eskolaren matrikulazio kanpainaren barruan antolatuta dute.



Txakurraren Eguna ERMUAN

Zapatuan Txakurraren Eguna ospatuko dute Ermuan, Marcan Huella elkartearen eskutik. Egitaraua 12:00etan hasi eta gaueko 22:30ak aldera amaituko da, Orbe kardenalaren plazan eta, besteak beste, umeendako tailerrak (17:00etatik 20:00etara) eta ipuin-kontalari saioa (19:15ean) egingo dituzte, gauza biak euskeraz. Horrez gain, Ertzaintzaren txakurrekin exhibizioa, "disc dog" erakustaldia, hitzaldiak eta beste hainbat jarduera ere eskainiko dira.

Margo Lehiaketa MENDARON

Bihar egingo dute Mendaron 21. Aire Libreko Margo Lehiaketa herriko kaleetan. Parte hartu nahi dutenek 09:00etatik 11:00etara eman beharko dute izena, Mendaroko udaletxeko sarreran. Lehiaketako lan guztiak ikusgai ipiniko dituzte, urriaren 7tik 16ra Lagun Betikoeneak hartuko duen erakusketan. Lehiaketari buruzko informazio osoa www.mendaro.eus helbidean dago.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Ricardo Fernandez Nuñez. 82 urte. 2016-VIII-3.
- Ines Martin Fraile. 106 urte. 2016-IX-18.
- Serafin Cortes Valcarcel. 77 urte. 2016-IX-22.
- Pilar Errasti Astigarraga. 75 urte. 2016-IX-22.
- Ana Mª Zufia Sanchez. 54 urte. 2016-IX-23.
- Rosario Argarate Bolinaga. 83 urte. 2016-IX-23.
- Amelia Ruiz Contreras. 78 urte. 2016-IX-23.
- Esther Muñoa Zabaleta. 90 urte. 2016-IX-24.
- Bartolome Del Campo Castellanos. 82 urte. 2016-IX-25.
- Ramon Da Aira Franqueira. 86 urte. 2016-IX-25.
- Mercedes Manchola Azpiazu. 93 urte. 2016-IX-25.
- Ignacio Zenarruzabeitia Berasaluze. 83 urte. 2016-IX-27.

jaiotakoak

- Aicha Noumir Zoudi. 2016-IX-20.
- Eljon Ammetad. 2016-IX-23.
- Sayf Al Din El Boussaidi. 2016-IX-25.
- Markel Villa Astigarraga. 2016-IX-26.

farmaziak

- Barixakua 30
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 1
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Domeka 2
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 3
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 4
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguaztena 5
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguena 6
EGUNEZ **Azkué** (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 7
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol. Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMATZA

2	7	1	6	5	9	3	4	8
5	6	8	4	1	3	7	2	9
3	4	9	7	8	2	6	1	5
9	2	6	3	8	1	5	7	4
1	3	7	2	4	5	8	9	6
8	5	4	9	6	7	1	3	2
7	8	2	5	3	4	9	6	1
4	1	5	7	9	6	2	8	3
6	9	3	1	2	8	4	5	7

SUDOKUA

	7		8					
		3			7			
8			1	5		7	4	
	4	7					1	2
6								3
5	3					4	6	
	1	9		3	6			5
			2			6		
				8		7		

Barixakua 30

BERTSOAK

19:00. "Testurak" bertso-saioa. Bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegia, Onintza Enbeita, Izarne Zelaia eta Saioa Alkaiza. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Sarrera doan. Andretxean.

KALEJIRA

19:00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren kantu-kalejira. Untzagatik abiatuta.

DANTZA

20:30. "Esencia flamenca" (Castro Romero Flamenco-Suite Española). Coliseoan.

BERTSOAK

22:30. Bertso saio musikatua. Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza, Oihana Iguaran eta Manu Goiogana. Gai-jartzailea: Haritz Casabal. Musikoak: Ixak Arruti (gitarra) eta Eneko Sierra (saxofoia). Txaltxa Zelaiko auditorioan (euria egingo balu, Portalean).

Zapatua 1

SAGARDO EGUNA

12:00/14:30 eta 19:00etatik aurrera. Sagardo Eguna. Untzagan.

SANMIGUELAK

17:00. Briska txapelketa.
17:30. Umeendako jolasak eta txokolate jana.
21:00. Lagunarteko afaria.
23:00. Erromeria, Kupela taldearekin. Goizaldean txokolate-jana. Aginaga auzoan.

Domeka 2

KILOMETROAK

09:30. Kilometroak ikastolen jaira joateko autobusaren irteera ordua. Ego Gainetik. Itzulera 19:30ean.

ALDERDI EGUNA

09:40. Forondako zelaietan (Araba) ospatuko den Alderdi Eguna joateko autobusaren irteera ordua. Urkizutik (Zubi Gain, 09:45ean Ego Gaineko geralekutik). Itzulerako autobusa 18:00etan izango da.

AZOKA EKOLOGIKOA

10:00/14:00. Debabarreneko V. Azoka Ekologikoa. Produktu ekologikoak ezagutzeko, dastatzeko eta erosteko azoka.

11:00. Tailerrak: Landaketa (umeentzat). Zuku eta batido naturalak. Urkizuko parkean.

SANMIGUELAK

11:00. Meza nagusia.
12:30. Gorriti-ren abereak.
14:30. Paella-jana, trikitilariak alaituta. Jaiei amaiera emateko zozketa. Aginaga auzoan.

Astelehena 3

ELKARRETARATZEA

19:00. Nagusien Nazioarteko Eguna dela eta, elkarretaratzea. Untzagan (jubilatutako etxearen aldean).

Martitzena 4

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Harixa Emoten euskarazko irakurle taldea: "Zu" (Anjel Lertxundi). Sarrera libre. Portalean.

Eguaztena 5

IKASTEN

09:10. Mendi ibilaldia: Urdaibai-Gernika-Mundaka. Bazkaria eraman behar da. Trenaren irteera ordua Estaziñotik (09:13 Ardantzatik).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:30. "Bulgaria. Balkanak" (Periko Alonso). Klub Deportiboan.

Eguena 6

ODOL-ATERATZEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

POESIA

19:00. Ciudad Juarez (Mexiko) gertatutako hilketak salatzen poesiak irakurtzeko saioa, Itzamna poesia tailerraren eskutik. Itzamna akademian.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

1ean: 19:45, 22:30
2an: 20:00
3an: 20:30

"Vientos de La Habana"

Zuzendaria: Felix Viscarret



(2 ARETOAN)

1ean: 17:00, 19:45, 22:30
2an: 17:00, 20:00
3an: 20:30

"Los siete magnificos"

Zuzendaria: Antoine Fuque



(ANTZOKIAN)

1ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
2an: 17:00⁽¹⁾ (Aretokian), 20:00
3an: 20:30

"El hogar de Miss Peregrine"

Zuzendaria: Tim Burton



(ANTZOKIAN)


1ean: 17:00
2an: 17:00

"Printze txikia"

Zuzendaria: Mark Osborne



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, NEREA!!!
Gaur zazpi urte betetzen dozuzenez, milla patxo aitaxo, amatxo eta Mikelen partez.



Zorionak, MIKEL, astelehenian sei urte bete zenduaz-en eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Urkoren partez.




Zorionak, MALEN, atzo 13 urte potolo bete zenduaz-en eta. Patxo haundi bat famelixako guztion partez.



Zorionak, DANEL, astelehenian 9 urte betekozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Miren eta Paularen partez.



Zorionak, MIKEL, atzo zortzi urtetxoz bete zenduaz-en eta. Musu haundi bat aitaxo, amatxo eta Unairen partez.



Zorionak, MADDI!! Aurtzen lau urte, printzesa! Patxo haundi-haundixa famelixa guztiaren eta, batez be, Ekhiaren partez.



Zorionak, ANER, martitzenian urtetxua egin zenduan-eta. Patxo potolua etxekuen partez.



Zorionak, MIKEL Treviño, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Iñaki, Lucia, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, ARRATE maitia, sei urte betekozuz-eta. Musu haundi-haundi bat famelixaren partez.




Ongi etorri, OIER Zuazua, iraillaren 5etik gure artian zagozelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ALBERTO eta MARIASUN, atzo zuen urrezko ezteiak izan ziran-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, KOIKILLI (atzo hiru urte) eta PELLO (gaur bi urte). Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Ekhi, Enara eta Eñauten partez.



Zorionak, bikote! JUNEK lau urte betekozuz-eta abuztuaren 26xan eta ELENK bi urte martitzen honetan. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARATZ eta RIKI!!, domekan zuen urtebetetze eguna da-eta. Musu haundi bat etxekuen partez!!

Erakusketak

Irailaren 30era arte:

- MANU BARREIROREN "Miradas y almas" argazki-erakusketa. (Klub Deportiboan)
- JOSE LUIS IRIGOIENEN argazki-erakusketa. (El Ambigú tabernan)
- JOAN PARERAREN "El pas del temps" argazki-erakusketa. (Portalea tabernan)

Urriaren 16ra arte:

- JOSE ZUGASTIREN "Biharra. Arimakoa" erakusketa. (Portalean)

Urriaren 29ra arte:

- JOSE ANTONIO FERNANDEZ PEREZEN "Flores de Las Merindades. Un año de fotografía", argazki-erakusketa. (El Corte Inglesean -ekitaldi aretoan-)

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 608-588444.
- Logela alokatzen dut Amañan, etxe guztia erabiltzeko eskubidearekin. Familia giroa. Tel. 632-607193.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 625-019711.
- Pisua hartu nahi dut alokairuan Eibarren. Tel. 622-824468.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 660-047305.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Ipuruan, fobal-zelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Ubitxa inguruan. Kalera-ko irteera zuzena. Bulego, lantegi edo tailer txikirako aproposa. 70-150 m². Tel. 617-688311.
- Ilepaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 637-191540.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-191832.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-916761.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 674-901599.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-245326.
- Neska eskaintzen da emakume nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-973549.
- Geriatriako laguntzaile arduratsua eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Baita gauze eta ospitalean ere. Esperientzia. Tel. 660-511781 eta 943-742330.
- Neska eskaintzen da publizitatea banatzeko eta garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 632-280947.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-175581.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-191397. Aida.
- Neska arduratsua euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Tel. 667-940741.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Baita arratsalde ere. Tel. 675-215025.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 632-518437.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserri lanetarako. Tel. 634-830423.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde (13:00etatik aurrera) umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-190614.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 722-555027.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 615-394820.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 620-689311.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 677-700968.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko. Gidatzeko baimena eta autoa. Tel. 664-013591.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-626975.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-044382.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-144954.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-802772.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-588444.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-607193.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 602-193518.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-831103.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 610-372074.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-558402.

4.2. Langile bila

- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Bidalitx curriculum-a: esteticieneibar@gmail.com
- Eibarko enpresa batek arteztaila konbentzionala behar du. Bidalitx curriculum-a: recificador.eibar@gmail.com
- Fisioterapeuta edo kiromasajista behar da Eibarko ilepaindegi batean. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Errusierako irakaslea behar da. Tel. 678-883025.

- DBH4ko klase partikularrak etxean eman go dizkidana behar dut: gai guztiak orokorrean. Tel. 636-523804.
- Eibarko akademia batek ingeles eta frantseseko irakasleak behar ditu. Esperientzia ezinbestekoa. Bidalitx curriculum-a: irakasle-eibarCV@gmail.com

5.2. Eskaintzak

- Irakasle-masterra duen neska eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrak emateko. Tel. 699-495279.
- Hispaniar Filologia, BHko masterra eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. LH eta letretako ikasgaiak, DBH eta Batxilergoa. Tel. 665-741142.
- Magisteritza eta EGA tituluak dituen neska euskalduna eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrak emateko. Tel. 638-715066. Saioa.
- Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau lagunekin taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- Neska eskaintzen da LH, DBH eta Batxilergoko klaseak emateko. 3 lagunekin taldeak. Tel. 943-127365 eta 685-739709.
- Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da haur eta gazteei klaseak emateko. Ingeles titulua. Tel. 692-706012. Leire.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- Magisteritza ikasitako ingeleseko titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
- Magisteritza ikasitako EGA titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 677-539087.
- Musika klase pertsonalizatuak ematen ditut zure etxean. Zure beharretara egokitutako metodo alaiak: biolina, pianoa, musika-hizkuntza, musikoterapia. Adin guztiak. Tel. 645-513273.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Alfombra salgai (1,99 zabalera x 2,93 luzeera). Tel. 656-794762.
- 0,90eko sukalde salgai, gas bonbonak eramatekoarekin. Baita 0,90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Sehaska eta 0'90eko oherako bi koltxa salgai. la berriak denak. Tel. 943-203014.
- Narruzko bi sofa salgai (bat birenzat, besteak bakarrarentzat). Tel. 619-163031.
- 1,35x1,90eko koltxoia (Woolmark markakoa) salgai. Biskolastikoa eta transpiragarria. Tel. 619-673058.
- Mountain-bike bizikleta (Conor markakoa) salgai. Berria. Tel. 619-673058.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Pultsera galdu nuen irailaren 21ean Julian Etxeberria eta Calbeton kaleen artean. Sarituko da, duen balio sentimentalak dela-eta. Tel. 635-731659.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila


5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

AZAROA/ABENDUKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren, Durango, Arrasaten eta Bilbon

MATRIKULAK
Urriaren 1etik 15era

AZTERKETA DATA

PET CB	(PAPERS 1,2,3,4)	Azaroak 26 (larunbata)	AZTERKETA BILBON
PET PB	(PAPERS 1,2,3,4)	Azaroak 12 (larunbata)	
FCE FS	(PAPERS 1,2,3,4)	Abenduak 3 (larunbata)	
CAE	(PAPERS 1,2,3,4)	Abenduak 3 (larunbata)	

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79
	Idiomaster	943 79 07 84	DEBA:	Akabi	943 19 16 79
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53		North Street English	943 19 25 00
BILBAO:	Capital Languages	94 445 73 04	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Anglo-American	943 20 01 08	MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
	Link Idiomias	943 20 39 59	MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
OÑATI:	Academia Sheila Fritz	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11 Tel. 943 20 03 84
 orbea.eibar@haurrekolak.eus



Matrikulazioa: **urriaren**
3tik 10era



EIBAR

HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

- ◆ KALITATEA PREZIORIK ONENEAN, TRATAMENDU GUZTIETAN
- ◆ ARRETA PERTSONALIZATUA, HURBILA ETA PROFESIONALA
- ◆ HAGINLARI KOLEGIATUAK, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIAREKIN
- ◆ ODONTOPIEDIATRIA ZERBITZUA, HAURDUNALDITIK | KLINIKAN KONTSULTATU



R.P.S. 259/15
MAITANE G. INIGUEZ
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

ZERBITZU GUZTIAK KLINIKAN BERTAN

- ◆ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ◆ HAUR-ODONTOLOGIA
- ◆ HORTZ ZURITZEA ETA ESTETIKA

- ORTODONTZIA ◆
- PROTESI FIJOA ETA KENTZEKOA ◆
- ZIRUGIA ETA INPLANTEAK ◆

SAN AGUSTIN KALEA, 4 BEHEA EZKERRA, 20600 EIBAR

TELEFONOA 943 537 076
www.eibarclinicadental.com

MUGIKORRA 688 884 808
info@eibarclinicadental.com